



## Guneen azoka, inoizko egitarau zabalenarekin

Egun bat gutxiagorekin, baina egitarau oparoagaz datorkigu 47. Euskal Liburu eta Disko Azoka. Euskal sortzaileek zazpi gunetan aukeztuko dituzte euren lanak

Argazki Press

**ARGIZAIOLA** | 6

### Benito Lertxundiri emango diote Argizaiola

Gerediaga Elkartek Benito Lertxundi abeslari oriotarrari emango dio aurten Argizaiola omen saria. Horrez gainera, 'Oroimenaren oraina' disko berria aurkeztera ere badator Lertxundi Azokara: "Jendearekin daukadan harreman hori izugarriko saria iruditzen zait".



**IJITOAK** | 10-12

### Kultura ijitoa ezagutzeko aukera Durangoko Azokan


Berbaldiak, ipuin kontakizunak, tailerrak, film emanaldiak eta ikuskizun berezi bat prestatu dute Gerediagak eta ijitoen kulturaren alde diharduen Kale dor Kayiko elkarteak azokarako. Erromintxela hizkerari buruzko mahai-ingurua antolatuko dute abenduaren 9rako.



ZIENTZIA  
IRAKURLE  
ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.





k o k a p e n a

Nobedadez betetako hiru kale

| STAND                            | KALEA      | STAND   | STAND                               | KALEA      | STAND   | STAND                            | KALEA      | STAND   |
|----------------------------------|------------|---------|-------------------------------------|------------|---------|----------------------------------|------------|---------|
| 1512-2012 NAFARROA BIZIRIK       | Artekale   | 36      | ELKAR BANAKETA                      | Goienkale  | 22-24   | KONTSEILU EBANJELIKOA            | Artekale   | 72      |
| ADARMENDI                        | Goienkale  | 77      | ELKAR - ARGIAK                      | Barrenkale | 25      | KULTURTICK                       | Artekale   | 13      |
| AEK-AIZUI                        | Barrenkale | 18      | ENA                                 | Artekale   | 92      | LABAYRU IKASTEGIA                | Artekale   | 82-83   |
| AGORILA                          | Artekale   | 66      | EREIN                               | Goienkale  | 1-7     | LANKU BARTSO ZERBITZUAK          | Artekale   | 39      |
| AHAZTUAK                         | Artekale   | 54      | EROSKI                              | Artekale   | 5-6     | LEMURIA                          | Artekale   | 61      |
| AHOTSAK.COM                      | Artekale   | 81      | EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA         | Artekale   | 74      | MAIATZ                           | Artekale   | 68      |
| AIZKORRI ARGITALETXEA            | Goienkale  | 21      | EUSKAL HERRIA ALDIZKARIA            | Goienkale  | 82-83   | MALUTA                           | Goienkale  | 102     |
| ALBERDANIA                       | Goienkale  | 65-69   | EUSKAL HERRIA SOZIALISTA            | Artekale   | 56      | MAUKA                            | Barrenkale | 1       |
| ALTAFAYLLA-ARABERA               | Goienkale  | 96      | EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ             | Artekale   | 59      | MEETOK                           | Goienkale  | 45      |
| AMETSIK NAHI?-GAUMIN             | Goienkale  | 12      | EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE           |            |         | MENDEBALDE / ADOREZ HIZTEGIAK    | Artekale   | 18      |
| ARABAKO FORU ALDUNDIA            | Artekale   | 96      | ELKARTEA / AFRIC' FORUM             | Artekale   | 40      | METAKESAN OZENKI                 | Barrenkale | 27      |
| ARGIA                            | Goienkale  | 113-115 | EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA       | Artekale   | 25-27   | MEZULARI                         | Goienkale  | 99-101  |
| ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA          | Artekale   | 41-42   | EUSKAL MEMORIA                      | Goienkale  | 97-98   | MIKEL URDANGARIN                 | Barrenkale | 29      |
| ASKAPENA                         | Artekale   | 60      | EUSKALTZAINDIA                      | Artekale   | 16-17   | MONDRAGON UNIBERTSITATEA         | Artekale   | 28      |
| ASTERO                           | Goienkale  | 61      | EUSKO JAURLARITZA                   | Artekale   | 7-10    | MUNDUA-AFEDE                     | Goienkale  | 110-112 |
| ATARAMIÑE                        | Artekale   | 52      | EUSKO LEGEBILTZARRA                 | Artekale   | 20      | NABARRALDE                       | Goienkale  | 72-73   |
| AZKUE FUNDAZIOA                  | Artekale   | 93-95   | GAKOA                               | Goienkale  | 44      | OIHUKA                           | Barrenkale | 26      |
| BADIHARDUGU                      | Artekale   | 80      | GARA                                | Goienkale  | 59-60   | PAMIELA                          | Goienkale  | 52-57   |
| BAGA-BIGA MUSIKA IDEIAK          | Barrenkale | 5-7     | GATUZAIN                            | Artekale   | 70      | PAMIELA-KALANDRAKA               | Goienkale  | 51      |
| BANIZU NIZUKE                    | Barrenkale | 15      | GAZTA ZATI BAT                      | Artekale   | 90      | PAMIELA-UDALBIDE-EKE             | Goienkale  | 58      |
| BBK                              | Artekale   | 3-4     | GAZTE SORKUNTZA                     | Artekale   | 58      | PIRRITX, PORROTX ETA MARI MOTOTS | Artekale   | 63      |
| BERRIA TALDEA                    | Goienkale  | 62-63   | GAZTEZULO.COM                       | Barrenkale | 17      | PRACTICE YOUR MUSIC              | Artekale   | 88      |
| BERRIA TALDEA / LA GALLINA VASCA | Goienkale  | 64      | GEREDIAGA ELKARTEA                  | Artekale   | 0       | ROCK IZAR RECORDS                | Barrenkale | 88      |
| BERTSOLARI ALDIZKARIA            | Artekale   | 77      | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA            | Artekale   | 97-98   | SABINO ARANA FUNDAZIOA           | Artekale   | 19      |
| BIDEHUTS                         | Barrenkale | 4       | GITE=IPES / ZINEZ                   | Artekale   | 55      | SILBOBERRI TXISTU ELKARTEA       | Artekale   | 73      |
| BILBOKO UDALA                    | Artekale   | 22      | GOR MUSIKA                          | Barrenkale | 12-14   | SORTZEN=KASBATUAZ                | Artekale   | 32      |
| BITARTE LIBURUAK                 | Goienkale  | 71      | GOSE                                | Barrenkale | 2       | SU TA GAR                        | Barrenkale | 32      |
| BIZKAIKO FORU ALDUNDIA           | Artekale   | 99-101  | GURE LIBURUAK                       | Goienkale  | 87      | SUA EDIZIOAK                     | Goienkale  | 84-86   |
| BIZKAIKO MUSEOAK                 | Artekale   | 21      | HABE                                | Artekale   | 11-12   | SUSA-LITERATURA                  | Goienkale  | 74-76   |
| BONBERENEKA EKINTZAK             | Barrenkale | 11      | HALADZIPO KULTUR ELKARTEA / TAUPAKA | Barrenkale | 10      | TALKA RECORDS & FILMS            | Barrenkale | 3       |
| BRIAN'S RECORDS / SEIREN         | Barrenkale | 37      | HAMAIKA TELEBISTA                   | Artekale   | 86-87   | THE BALDE / ENTZUN!              | Barrenkale | 16      |
| BRIXTON RECORDS                  | Barrenkale | 33      | HARRIA                              | Artekale   | 91      | TMEO                             | Artekale   | 50      |
| DENON ARTEAN                     | Goienkale  | 70      | HERRIRA ELKARTEA                    | Artekale   | 53      | TRAVEL BUG                       | Goienkale  | 46-49   |
| DESCLÉE                          | Goienkale  | 8-9     | HIK HASI                            | Artekale   | 33      | TRIKITXA ELKARTEAK               | Artekale   | 75      |
| DEUSTUKO UNIBERTSITATEA          | Artekale   | 23      | HIRI RECORDS                        | Barrenkale | 41      | TARTTALO                         | Goienkale  | 25-31   |
| DURANGALDEKO ARGITALPENAK        | Artekale   | 1       | HOTSAK.COM                          | Barrenkale | 35-36   | TXALAPARTA                       | Goienkale  | 88-95   |
| DURANGOKO UDALA                  | Artekale   | 2       | IBAIZABAL                           | Goienkale  | 13-20   | TXAPELGAMES-GESTIONET            | Artekale   | 14-15   |
| EFARANTZAZU                      | Artekale   | 85      | IDATZ                               | Artekale   | 84      | TXERTOIA                         | Goienkale  | 78-80   |
| EGUZKI BIDEOAK                   | Barrenkale | 8-9     | IGELA                               | Goienkale  | 50      | TXISTULARI ELKARTEA              | Artekale   | 76      |
| EH DISKOETXEEN ELKARTEA          | Barrenkale | 40      | IKAS PEDAGOGIA ZERBITZUA            | Artekale   | 69      | UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA      | Artekale   | 24      |
| EHAEO/COAVN                      | Artekale   | 29      | IKASELKAR                           | Goienkale  | 103-109 | UNIVERSITY OF NEVADA PRESS       | Artekale   | 79      |
| EHAZE                            | Artekale   | 38      | INDEPENDENTISTAK SAREA              | Artekale   | 57      | URTIXINTXA ESKOLA                | Goienkale  | 10-11   |
| EL MUNDO DE LOS PIRINEOS         | Goienkale  | 81      | INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA       | Artekale   | 37      | WWW.KATXIPORRETA.COM             | Artekale   | 65      |
| ELHUYAR                          | Artekale   | 30-31   | IPARRALDEKO IKASTOLAK               | Artekale   | 71      | WWW.KILIKLON.COM                 | Barrenkale | 34      |
| ELKAR                            | Barrenkale | 20-24   | IRRIEN LAGUNAK                      | Artekale   | 62      | XARE                             | Artekale   | 89      |
| ELKAR                            | Goienkale  | 32-43   | JAKIN                               | Artekale   | 78      | ZENBAT GARA                      | Barrenkale | 19      |
| ELKAR AZOKAK                     | Artekale   | 47-49   | J.K. IRIZAR                         | Barrenkale | 30      | ZTK                              | Artekale   | 67      |
| ELKAR BANAKETA                   | Artekale   | 43-46   | KATXIPORRETA KOOPE                  | Artekale   | 64      | ZUTOIA                           | Artekale   | 34-35   |
| ELKAR BANAKETA                   | Barrenkale | 28      | KLASIKART                           | Barrenkale | 39      |                                  |            |         |

## 18.korrika-k

### LAGUNTZAILEAK BEHAR DITU

12 euroren truke, garrantzitsuena lortu duzu:  
AEK-ko ikasleak laguntzea

**EGIN ZAITEZ KORRIKA LAGUNTZAILEA!**  
Azokan AEKren stanean, eta Korrika dendan (Ermodo kalea, 5)

www.aek.org  
www.korrika.org

# Azokako egitaraua

## ABENDUAREN 6an

11:00 Ipuin kontalari inprobisatua (Fede Badiola), Kabi@-n. Baita 17:30ean ere.

12:00 **Inaugurazio ekitaldia. 'Nire kea zurearen palian dao'**. Euskal kultura eta ijitoena batuz fusio ikuskizuna. Bertsoak, musika eta txalapartagaz: Amets Arzallus eta Arkaitz Estiballes besteak beste. Areto Nagusian

12:00 Umeentzako antzerki maratoia: **Eingo al deu amets?** (Ttak); **Papo Pupa** (Hipo ta Tomax); **Zapata gorriak** (Patata Tropikala); **Boli, bili, boli** (Pantartz); **Txarlestrop** (Zirika Zirkus), San Agustin kulturagunean.

12:30 Aurkezpena: Tranxmedia proiektua (Korrika, EHU eta ETBren arteko diziplina anitzeko proiektua), Kabi@-n.

12:30 **Zineuskadi: zinema euskaraz: Freddy Igeldegi** (P. Dodd). 13:45ean, **Hanburgesen zaparrada** (P. Lord eta C. Miller). 17:30ean, **Rio** (C. Saldanha), Irudienean. Bikoizketa tailerrak (6-12 urte), 15:30ean.

13:30 **Zazpi ebidentzia birjaiotzarako** liburua (Xabier Amuriza-Lanku), Aretoan.

14:00 **Al mal tiempo buena arcada** liburua (Iban Gorriti eta Pablo Salgado-Banizu Nizuke), Aretoan.

14:30 **Euskal Herriko Eskualdeak + 15 urteren ondoren** liburua (ENA), Aretoan.

15:00 **Euskararen Herriaren konstituzioan** liburua (Urtzi Ihitza Sainz-Lemuria), Aretoan.

15:30 **Al son del punk** liburua (Josu Trueba eta Pablo Salgado-Banizu Nizuke), Aretoan.

16:00 **1512: Konkistaren ondorioak. Consecuencias de la Conquista** liburua (Angel Rekalde eta Joseba Asiron-Txertoa eta Nabarralde), Aretoan.

16:30 **Eguberria** liburua (Marta Casares, Juan Cruz Igerabide eta Elena Odriozola-Nerea argitaletxea), Aretoan.

17:00 **El caso vasco: el desarrollo humano sostenible** liburua (Juan Jose Ibarretxe-Oveja Negra), Aretoan.

17:30 **Finlandiera-Euskara hiztegia** (Joseba Ossa- Euskal Herria Finlandia eta Suomi elkarteak), Aretoan.

18:00 Hitzaldia: Oroitzak: Gudaren 75. urteurrena. **Eguna-ren egunak** (Hizlaria: Xabier Altxibar), Aretoan.

18:30 Aurkezpena: Euskarazko bideojokoetarako mugimenduak hartzeko aplikazioa, Kabi@-n.

19:00 **Practice your music** (Balea), Kabi@-n.

19:00 Euskarazko bideoklipak, Irudienean.

20:30 **Gaezan argi**: Benito Lertxundiri argizaiola. San Agustin kulturagunean Jon Maiak gidatuta (Gerediaga).

## ABENDUAREN 7an

10:00 Euskarazko bideoklipak, Irudienean.

10:30 Jolas interaktiboa: QR kode bidezko Altxorraren bila (Maite Goñi), Kabi@-n. Sari banaketa, 13:30ean.

10:30: **Idea batzuk krisi madarikatu hau gainditzeko** (Jabier Lertxundi eta Koikili Lertxundi-Iltzartu Aholkularitza) liburua, Areto nagusian.

10:30 Euskarazko film laburrak, Irudienean

11:00 **Hazi Hezi: etxerako heziketa aldizkaria** (Ainara Gorostizu eta Jose Mari Auzmendi-Xangorin), Aretoan.

11:00 Euskarazko Wikipediaren elikatze masiboaren proiektua: Denbora luzerako proiektuari oinarriak ezarri eta hasiera ematea (UEU/ Wikipedia euskaraz), Kabi@-n.

11:30 Haurrentzako atari interaktiboa: **Lur gorrian barrena** (Amaia Etxepeteleku, Yoana Figueras, Lander Irazusta eta Ritxi Lizartza- Bitanta eta Maramara), Aretoan.

12:00 Hitzaldia: **Idazle berriak autoedizioaren bidetik** (Gaizka Zubizarreta), Aretoan.

12:00 3Dn egindako 2012ko ekoizpenak, zuzendariekin: **Gose IIIII** (Gose), **Morritson eta Gartzia** (Aiert Goenaga eta Jon Urraza), **Jantzi Urdina** (Keu Agirretxea) eta **Kotoizko maitaleak** (Mikel Clemente), Irudienean.

12:30 Hitzaldia: Oroitzak: Gudaren 75. urteurrena. **Nafarroa: 500 hitzeko gutuna** (Patxi Zabaleta), Aretoan.

12:30 Antzerki maratoia: **Mortimer** (Kukubiltxo); **7tik 3** (Zurriola ikastola); **Aktibo toxikoa** (Bederen 1), San Agustin kulturagunean.

13:30 **Maltzeta, soinu bete bihotz** liburua (Juan Luis

Zabala Artetxe, Mamen Garate, Eneritz Gorrotxategi eta Aitziber Otegi-Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak), Aretoan.

14:00 **11 Kantatzeko** liburua (Urko Egaña, Olatz Amozarrain, Antton Iztueta, Oskar Estanca eta Leire Derteano-Lanku), Aretoan.

14:00 Euskal jolas interaktiboak, Kabi@-n.

14:30 **Rock y violencia, una historia de Eskorbuto** liburua (Roberto Ortega-Banizu Nizuke), Aretoan.

14:30 **Arrasate 1936: Emakumea, gerra eta errepresioa** dokumentala (Intxorta kultur elkarteak), Irudienean.

15:00 **Zestoako musika historiaren konpasean** liburua (Garikoitz Mendizabal-Danbolin Zulo kultur elkarteak), Aretoan.

15:15 **Sirena hotsak** dokumentala (Ahaztuak 1936-1977), Irudienean.

15:30 Hitzaldia: Kultura gonbidatua **Emakume ijitoaren aldarria**, Aretoan.

16:00 Hitzaldia: **Ekonomiaz interneten** (Miren Dobaran, Adrian Zelaia eta Errukane Aperribai-Ekai Center), Aretoan.

16:00 Euskarazko bakarrizketak, Kike Amonarrizek gidatuta, San Agustin kulturagunean.

16:00 Kultura gonbidatua: **Latcho Drom (Tony Gatlif)**, Irudienean.

16:00 Hitzaldia: **Nortasun digitala** (Maite Goñi), Kabi@-n.

17:00 **ETA- PNV Crónica oculta (1960-1979)** liburua (Jose Felix Azurmendi-Ttarttalo), Aretoan.

17:00 Euskarazko softwareak, Kabi@-n.

17:30 **Euskal Estatuari bidea zabaltzen** liburua (Txomin Lorca-Ipar Hegoa Fundazioa eta UEU), Aretoan.

18:00 Mahai ingurura: Oroitzak: Gudaren 75. urteurrena. **Elizaren eragina gerran eta bakean** (Iñaki Goigana, Enara Garcia eta Asier Madarieta. Moderatzailea: Jabi Onaindia), Aretoan.

18:00 Antzerki maratoia: **Mortimer** (Kukubiltxo); **7tik 3** (Zurriola ikastola); **Aktibo toxikoa** (Bederen 1), San Agustinen.

18:00 **Gazta zati bat** dokumentala (Jon Maia eta Angel Oiarbide-Nazioen Mundua elkarteak), Irudienean.

18:30 Sei2012 sari banaketa Kabi@-n.

## ABENDUAREN 8an

10:00 Euskarazko bideoklipak, Irudienean.

10:30 Euskarazko film laburrak, Irudienean.

10:30 Teknologia libre desberdinen arteko tailer irekia: Durangoko Azoka (Gorka Julio), Kabi@-n. Ondorioak 15:30ean.

10:30 **Txistu Symphonic** diskoa (Garikoitz Mendizabal-Euskal Herriko Txistulari Elkarteak), Aretoan.

10:50 **La II. Republica y la Guerra Civil en Deusto** liburua (Borja Sarrionandia- Ahaztuak 1936-1977), Aretoan.

11:00 Antzerki maratoia: **Iragan perfektua** (Horman Poster); **Biba zorrien izurritea** (Abarka antzerki taldea); **Ispilua** (Aldatzen laguntzen); **Bejondaigula** (Ttanttaka Teatro); **Izan bedi emakumea** (Koldarrak antzerki taldea), San Agustin kulturagunean.

11:10 **La ciudad de los ojos grises** liburua (Felix G. Modroño-Algaida), Aretoan.

11:30 **Mareas** eta **Urak dakarrena** liburuak (Toti Mtz. de Lezea- Tarttalo), Aretoan.

12:00 **Titiriteroen ipuinak** liburua (Miren Amuriza, Gotzon Barandiaran, Jasone Osoro, Mireia Delgado, Josu Martinez, Uxue Alberdi, Juankar Lopez-Mugartza eta Pako Aristi-Urtxintxa Eskola Bizkaia) Aretoan.

12:30 Oroimen ekitaldia: Oroitzak: Gudaren 75. urteurrena: **Ahaztera kondenatutako bertso eta hitzak ahots berrietan**, Aretoan.

13:30 **Zurgai-Poetas Vascos** aldizkaria (J. Ramon Zabala eta Javier Rojo), Aretoan.

13:50 **La huelga de Potasas** liburua (Ahaztuak 1936-1977), Aretoan.

14:00 **Bertsolari** (erakutsi gabeko 20 minutuko proiektzioa). Asier Altuna eta Miren Amuriza, Irudienean (Txintxua Films).

14:10 **Euskal Herriko Unibertsitateko euskarazko testu**

**liburu berriak** (Gidor Bilbao eta Jesus Mari Makazaga-EHU), Aretoan.

14:30 **Idazleei galdezka** liburua (Patxi Salabari Muñoa eta Gidor Bilbao-EHU), Aretoan.

15:00 **Afrikako kontuan ipuin kontalariekin** liburua (Afric Forum), Aretoan.

15:30 **Arratiako ipuinak sutondoan legez** liburua (Angel Larrea eta Bibiñe Pujana- Mendebalde Kultura Alkartea), Aretoan.

16:00 Euskarazko proiektuen aurkezpen sorta: **Tabu 10, 10 hizlari, 10 minutu, 5 galdera eta hitz tabuak**, Kabi@-n.

16:00 **Mussche** liburua (Kirmen Uribe-Susa), Aretoan.

16:00 **Psicoblock** (David Maeztu-Bideografik), Irudienean.

16:30 **Aizkora hotsak goi mendietan** (Eukeni Arriortua-Bideografik), Irudienean.

16:30 **Azula** diskoa (Mikel Urdangarin- KAP), Aretoan.

17:00 Mahai ingurura: Askarako Hausnarketa Zikloa. **Zergaitik ez da euskal kulturgintza komunikabideetan ikusgarri?** (Karmelo Landa, Urtzi Urrutikoetxea eta Goizalde Landabaso. Moderatzailea: Alberto Barandiaran), Aretoan.

17:30 Antzerki maratoia: **Iragan perfektua** (Horman Poster); **Biba zorrien izurritea** (Abarka); **Ispilua** (Aldatzen laguntzen); **Bejondaigula** (Ttanttaka); **Izan bedi emakumea** (Koldarrak), San Agustin kulturagunean.

18:00 **Barrura begiratzeko leihoak** dokumentala (Txaber Larreategi-Zinez), Irudienean.

18:30 Hitzaldia: Oroitzak: Gudaren 75. urteurrena. **Gerrak apurtu ez zituen arkatzak** (Jon Kortazar), Aretoan.

18:30 Oretako Kabia ekimenak 2012an martxan jarritako proiektuaren alde teknologikoari buruzko aurkezpena, Kabi@-n.

## ABENDUAREN 9an

10:00 Euskarazko bideoklipak buklean, Irudienean.

10:30 Euskarazko film laburrak, Irudienean.

11:00 **San Blas begietan** liburua (Lorea Madina eta Txelu Angoitia-Abadiño Udalak eta Gerediaga elkarteak), Aretoan.

11:20 Liburua eta dokumentala: **Gerra Zibila Durangaldean 1936-1937** (Jon Irazabal eta Pablo Garitaonandia-Gerediaga), Aretoan.

12:00 Mahaingurua: **Bikoizketa vs. azpitoluak** (Ane Muñoz, Luistxo Fernandez, Marian Galarraga eta Iñako Gurrutxuga. Moderatzailea: Mikel Garcia), Irudienean.

12:30 **El Gernika de Richthofen. Un Ensayo de bombardeo de terror** liburua (Xabier Irujo Ametzaga eta Jon Irazabal-Gerediaga), Aretoan.

13:30 **Damutzen ez direnak** liburua (Itxaso Araque-Elkar), Aretoan.

14:00 Aurkezpen hitzaldia: **Gipuzkoaren ekonomi garapena** (Ekai Center). (Haritz Salaberria eta Adrian Zelaia) Aretoan.

14:00 **Euskara jendea** dokumental sorta (Ibaizabal, Mendebalde eta Zenbat Gara elkarteak), Irudienean.

14:30 **Munich 1962: Isildu egia** (Ane Ablanedo, Larratx Ariznabarreta. Olatz Zugasti, Naroa Anabitarte eta Ixaltxe Arana), Irudienean.

15:00 **Una habitación propia** liburua (Nerea Ayerbe-Consonni elkarteak), Aretoan.

15:30: **Bidasoa: Kontrabandisten bidea** liburua (Mikel Albusu eta Xabier Zugarramurdi-Sua), Aretoan.

16:00 Euskarako film laburrak, Irudienean.

16:00 **Historia crítica de la Guerra de Euskadi 1936-1937** liburua (J. Ramon Garai eta Jon Etxezarraga-Intxorta 1937), Aretoan.

17:15 Hitzaldia: Kultura gonbidatua. **Flamenkoa**, Aretoan. Aurretik, liburu eta komiki aurkezpena, 16:30ean.

18:00 Hitzaldia: Kultura gonbidatua **Erromintxela**, Aretoan.

18:00 3Dn egindako 2012ko ekoizpenak, zuzendariekin: **Gose IIIII** (Gose), **Morritson eta Gartzia** (Aiert Goenaga eta Jon Urraza), **Jantzi Urdina** (Keu Agirretxea) eta **Kotoizko maitaleak** (Mikel Clemente), Irudienean.

19:00 Azokideei eskerrak emateko ekitaldia (Gerediaga), Aretoan.

19:00 **Hura ez da lekua** (Metrokoadroka kolektiboa), San Agustin kulturagunea.



# Elkarlanean antolatutako azokak zabaldu ditu ateak

2012ko Euskal Liburu eta Disko Azokak gozatzeko egun bat gutxiago izango du aurten. Hala ere, 300 ekitalditik gora antolatuko dituzte azokako zazpi gunetan

**M**urrizketek alde guztietan eragin dute, eta azoka ez da gutxiago izan. Egungo egoera ekonomikoa dela eta, azokari egun bat kentzea erabaki du Gerediaga elkarteak. Bost egun barik, lau iraungo du, beraz, Durangoko 47. Liburu eta Disko Azokak. Erabaki horrek egitarauan ez du eraginik izan, baina. Azokako egunetarako 300 ekitalditik gora prestatu dituzte. Egitarau hori guztia azokako zazpi gunetan banatu dute: Areto Nagusian, Ahotsenean, Irudienean, Szenatokian, K@bian, Plateruean eta Saguganbaran.

Elkarlanaren garrantzia azpimarratu dute behin eta berriro azokaren antolatzaileek. "Elkarlana ardatza izan da egitaraua antolatzeko, eta gunek kudeatzeko", azaldu du Nerea Mujika Gerediagako presidentek. Aurten gunek bakoitzaren antolatzaileekin koordinazio mahaia eratu dute. Azokaren izakera irekia eta parte-hartzailea

---

Elkarlanaren garrantzia azpimarratu dute behin eta berriro azokaren antolatzaileek

---



---

Aurten, gunek bakoitzaren antolatzaileekin koordinazio mahaia eratu du Gerediaga elkarteak

---

erakusten duten ekimenak "finkatu eta indartzea" dutela helburu gaineratu dute. Platerueneko emanaldiak azokaren egitarau ofizialaren parte dira. Aurkezpenen azaldu zutenek, "erreferente bilakatu dira Platerueneko kontzertuak".

#### Areto Nagusia

Azokaren inaugurazio ekitaldia, *Nire kera zurearen palian dao* gaur izango da, 12:00etan. Euskal kultura eta ijito kultura batzen dituen fusio ikuskizuna izango da. Bertsoak, musika eta txalaparta uztartuko dira, Amets Arzallus eta Arkaitz Estiballesekin, besteak beste.

#### Ahotsenea

Azoka zabaltzen denetik ateak zarratu arte, sortzaileek euren lanak aurkezteko lekua izango dute Ahotsenean. Aurten, 88 emanaldi aurkeztuko dituzte Ahotsenea Gunean.

Liburu aurkezpenak eta kontzertuak tartekatuko dira, besteak beste.

#### Irudienea

Euskarazko ikus-entzunezkoen txokoak hainbat nobedade dakartza aurten. Besteak beste, 2012an euskaraz 3Dn egindako ekoizpenak proiektatuko dituzte aurten.

#### Szenatokia

Arte eszenikoen gunean, umeentzako argazki maratokia eta beste hainbat ikuskizun prestatu dituzte San Agustin Kulturgunean.

#### Kabi@

Teknologia berrien espazioan, Euskarazko Wikipediaren elikatze masiboaren proiektua erakutsiko dute eta QR kode bidez 'Altzorraren bila' ibiliko dira, besteak beste.

#### Plateruena

Beste ekitaldi askoren artean, Gatibuk eta Betagarrikaleratu berri dituzten lanak jendaurrean erakutsiko dituzte. Musikaz gainera, Info7 irratia Josep Lluís Carod Rovira izango du gonbidatu berezi, Gara eta Noticias taldeko zuzendariekin eta Berriako zuzendariordearekin.

#### Saguganbara

Berbaro elkarteak ume eta gazteei zuzendutako ekitaldiak antolatuko ditu. Umeen artean irakurzaletasuna bultzatzea da txoko honen helburua.

## ALCONADA AUTOBUSAK



Joan-etorriak sagardotegietara, ezteguetara, Errioxara, elurretara, leku turistikoetara...

Profesionalak gara lantegietarako, ikastegietarako eta kirol-taldeen partiduetarako joan-etorrietan. Mendi-taldeak ere eramaten ditugu.

**Beti prezio hoberena!**  
Egin kontsulta, eta aurrekontua egingo dizugu.

[www.autobusesermua.es](http://www.autobusesermua.es)

Tel.: 943 172 415 - 610 283 939 • [info@autobusesermua.es](mailto:info@autobusesermua.es) - [busalconada@gmail.com](mailto:busalconada@gmail.com)



**TABERNA JATETXEA**

- o eguneko menuak
- o menu bereziak
- o karta
- o deneriko pintxoak
- o razioak ...

aurrekontuak kontsultatu konpromiso gabel



Goienkale kalea, 14 - 48200 DURANGO • 94 681 10 20

# ALKIMAX

Alquilamos soluciones

Eitua industriagunea  
71C  
48240 BERRIZ  
(Bizkaia)  
94 682 45 50  
alkimax@alkimax.net

## Berrikuntza!

Kamioi plataformaduna,  
18 metrora arteko altuerakoa



[www.alkimax.net](http://www.alkimax.net)



# “Jendearekin daukadan harreman hori izugarrizko saria iruditzen zait”

Benito Lertxundik (Orio, 1942) jasoko du aurtengo Argizaiola saria. Errekonozimendua ikusten du sarien atzean, onespenea eta maitasuna ere bai. Baina, bere ustez, lanbidea bera da saria. Ez dago geldi, ez kantugintzan, ez hausnarketan.

## Zer sentsazio sortu dizu sariak?

Egiazki esateko, askotan saria jasotzeko momentu hori ez zait gehiegi gustatzen. Pixka bat arraro sentitzen naiz. Beharbada, oraindik hor, martxan, gabiltzako izango da. Jubilatuta egongo banintz ez dakit zer efektu egingo lidakeen. Gainera, gure lanbidea beti da saria, kontzeptu batean nolabait esateko: jendearen txaloa, onespenea, batzuetan maitasuna ere bai... Baina beno, sarian beti ikusten duzu errekonozimendu edo aitortza bat, eta maitasun puntu bat ere bai. Hori guztia beti polita da.

## Zelan gogoratzen dituzu azokaren hasierak?

Azokaren eta Ez Dok Amairu-ren sorrerak urte berean izan ziren, 1965ean. Bidean elkarrekin joan gara. Bigarren urtean, hiru han egon ginen, txoko batean ipinitako tabladu txiki batean. Lourdes Iriondo zen bat, eta bestea ez dakit Lete edo Laboa zen. Garai hartan denok gazte ginen, eta denok geunden hazten. Gauza berri baten aurrean geunden.

## Zelan ikusi duzu Azokaren eboluzioa?

Gaurkoak ez dauka ordukoarekin zerikusirik. Ez dira alferrik pasa ia 47 urte. Gauzak hasten direnean, beti ahalegin bat egiten duzu, gauzak ikasten-eta. Gero, urteekin, ibiltzen ikasten duzu, tradizio bat egiten da, kasik erritu bihurtzen da... Euskararen egunak dira, nolabait esateko. Denborarekin sona eta kategoriar hartu du. Errealitate egin da.

## Eta zure eboluzioa?

Bistan da ni ere ez naizela ordukoa, urte asko pasa direlako niregan ere. Aldaketak ere egon direlako; ez ofizioan edo gauzak egiteko moduan, baizik eta nire

eboluzioan. Orduan ulertzen ez nituen gauza asko ulertzen ditut orain, eta alderantziz izan daiteke. Aldatzen goaz, uneoro. Urteetan eta urteetan, pertsonak gure metamorfosia esperimendatzen ari gara. Azkenean, gure laginak uzten ditugu diskoetan, eta horiek kontsumitzen dituen jendeak agian nabardura gehiago ikusten ditu, ni egunero *hil-birjaitze* horretan bizi naizelako.



Kantuak ez dira guk gure etxean edukitzeko; kantuek hegan egiten dute



## Igartzen al duzu jendearen maitasuna?

Bai. Oso nabarmena da. Oso pribilegiatua sentitzen naiz. Gustatzen zaidan hori egiten pasatzen ari naiz bizitzan. Jendearekin dudaren harreman hori, konplizitate edo afektibotasun hori, izugarrizko saria iruditzen zait.

## Aurten, Oroimenaren oraina disko berria aurkeztu duzu.

Konturatu naiz, lanbide honetan gabiltzanok askotan ez dakigula noiz ari garen lanean eta noiz ez. Ematen du, ez garelako ari ezer egiten, baina bagabiltza barruko labe horretan gauzak egosten. Eta halako batean, atera egiten dira. Fase horretan ere egon nintzen denboralditxo bat ezer egin gabe. Batzuetan beldurra ere izaten da gauza berri batekin hasateko. Bat-batean hasi nintzen, eta egia esan azken disko honetan oso ondo pasatu dut, inoiz ez bezala. Oso erraz atera den dis-


koa da hau. Gainera, gozarazi egin dit. Adibidez, estudioko lanak ez zaizkit gustatzen, behin ere ez zaizkit gustatu. Kasu honetan, estudioan ere inoiz baino azkarrago egin dugu diskoa. Azken egunean kasik penatuta bezala atera nintzen estudiotik. Nire ibilbidean zerbait berria da hori. Hori guztia diskoarekin dago; energia ona daukala iruditzen zait.

## Zer hartzen duzu kontuan abestiak sortzerakoan?

Lehenengo kezka letra izaten da, zer esan. Egia esan, ez dakit zer dagoen lehenago eta zer dagoen atzetik. Azkenean, gauza bera da. Kantua, hitzak berak definitzen du dena dela, bere osotasunean. Baina, orokorrean letra batetik hasten naiz. Letra daukadanean, letra hori da kantua-ren mapa. Letrak askotan eskuetik eramaten zaitu; ematen du batzuetan letrak badakiela zer nahi duen eta zer ez. Batez ere, lehenik, zer nahi ez duen. Letra bat fundamentu gutxiarekin musikatzen hasten zarenean, letra segituan hasten zaizu protesta egiten. Ikusten duzu ez duela adierazten adierazi beharko lukeena. Kantari, bertutea ikusten diozu, esaten duzun hori lehen momentutik oso ondo irakur daitekeenean. Orduan bada-kizu musikak laguntzen diola. Zaila da teoriarik azaltzen, baina senak esaten dizu orain dagoela ongi, eta ez lehen.

## Zure abesti asko dagoeneko herriarenak direla esan ahal da.

Benetako patua hori da. Kantuak ez dira guk gure etxean edukitzeko; kantuek hegan egiten dute. Behin gure eskuetatik joan direnean, bizitza propioa daukate. Arnasteko haizea bezala; haize hori leku guztietan ibili da.



Argazki Press

## Zein erreferentzia duzu musikan?

Disko hau entzunda, jende guztiak esango dizu Leonard Cohen. Lehen aldiz entzun nuenean, segituan hurbilekoa egin zitzaidan. Ordurako, *Orbaitzetako arma olaren kantua* eta antzekoak banituen. Ordutik, betidanik belarria jarri diot Coheni. Bere estetikaren joerak niregan ere badaude.

## Arakaten ibiltzeko al zara?

Garai batean gehiago egiten nuen orain baino. Musikarekin gertatzen zait, hainbeste etortzen zaigula gaur egun zeharka, eskatu gabe... Bazter guztietan, sartzen zaren tokietan

musika daukazu: tabernan, dendan, irratan... Kasik ematen du isiltasunari ez diogula posibilitaterik ematen. Propio, neuk jarrita, oso gutxi entzuten dut.

## Saria ibilbideari lotutakoa da. Baina ibilbidea ez da amaitu...

Nire filosofian beti egon da ez dudala ulertzen kantari batek edo lan espiritual bat egiten duen batek zergatik jubilatuta behar duen. Ni jubilatuko nau osasunak, ez adinak. Sasoian nagoen bitartean, ez dut ikusten inolako arrazoirik uzteko. Onginago eta honetan jarraituko dut, hori dakit egiten-eta.

**ETXOSTE JATETXEA**  
**ABENDUAK 15**  
 bazkaria

{ Porrusalda - Baba gorriak **28€** }  
 { Bakailaoa bizkaitar erara }  
 { Baserriko oilaskoa - Intxaursaltsa }  
 { Lapikoko kafea eta etxeko ardoa }

ATXONDO - 94 682 06 31 - 626 402 693

Informa zaitez! **T. 944 247 566**  
 Ibañeta de Bilbao, 3, 3. sol. 1. Salla BILBO  
 www.laurendi.es

**AURENDI**  
 PROYECTOS Y PROMOCIONES

**ABADIÑON**  
**GANTZA ZELAIETA EGOITZA**  
 (Muntsaratz auzoa)

**BEREHALA BIZITZERA SARTZEKO MODUAN!**  
**EROSI ORAIN ETA LORTU BALDINTZARIK ONENAK!**  
 ETXABEAK EDOTA GOIKO ETXEBIZITZAK TERRAZA ZABALEKIN

Honako hauen finantziarioarekin: **Ipar Kutxa** **CAJA LABORAL**



**Etorkizunerako  
plan ona,  
bermatuta.**

**%3,5<sup>eko</sup>  
UTB**

**BASKEPENSIONES  
bermatua 17  
plan berria**

Kutxabankek bazkideari emandako bermea\*:  
2018/07/30ean planaren balioa  
2013/01/18koa gehi  
**%20,96 (%3,50 UTB),**  
baino txikiagoa bada, falta den  
aldea ordainduko dio.

**+ Kutxabank gordailua  
urte baterako %4arte**

Bermatutako Planaren UTB bateratua + Kutxabank gordailua: %3,577

\* Bermeak ordaindutako zenbatekoak,  
kasu horretan, ez dira BGAEaren prestaziotzat  
hartuko eta atxikipena ezarriko zaie.  
dagokion araudi fiskalaren arabera.



Hemen simulatu zure  
aurrezpen fiskala



**BASKEPENSIONES.**  
e.p.s.v.

**ibili dabiltzan planak.**

Kutxabank, Bazkide Sustatzailea eta Ondare-Kudeatzailea.

# 'Morritson eta Gartzia' 3D-ko filma aurkeztuko dute

Euskaraz 3D formatuan ekoizten den lehenengo film luzea da hau

**M**orritson eta Gartzia aurkeztuko dute Aiert Goenaga eta Jon Urraza zinema zuzendariak azokako Irudien gunean. 3D formatuan egindako euskarazko lehenengo film luzea da, eta Durangoko Azokagaz elkarlanean jarri dute

martxan proiektua. Aiert Goenaga, filmaren zuzendarietako bat eta ekoizlea izateaz gainera, azokaren zuzendaria da. Aurrekontu txikiagaz grabatu dute filma: bost egunean eta 30 orduko grabazioagaz ekoiztu dute ordu eta laurdeneko iraupena duen film luzea.

Jon Urrazaren *Morritson eta Gartzia*, antzezlana izango da filmaren oinarria. Urraza filmeko zuzendaria izateaz gainera, aktore nagusia da, Leire Olaranekin batera. Gidoiak komedia eta drama modu sinetsgarrian nahasten dituela azaldu du Urrazak.

Aspaldiko partez, parrandan elkarrekin batu ostean, Gartzia (Jon Urraza) bere

lagun Morritsonen (Leire Olaran) etxean geratuko da 'lotan'. Egonaldia, baina, hasieran uste baino askoz gehiago luzatuko da. Morritson, garai bateko punkia, ezkontzetan jotzetik bizi da egun; Gartzia, oster, zerotik hasi eta antzezlan urratzaile bat estreinatzeko gogoz dabil. Bien artean zerbait egingo dute? Zer? Inspirazioaren bila, eguneroko hainbat bizipenekin egingo dute topo, bikote arteko gorabeherak eta ikusleek espero izango ez duten bukaerarekin.

## Bideoklipak 3D-n

*Morritson eta Gartzia* film luzearekin batera, Gosek, Keu Agirretxeak eta Mikel Clementek 3D formatuan grabatu dituzten bideoklipak aurkeztuko dituzte Irudien gunean.



Bost egunean eta 30 orduko grabazioagaz ekoiztu dute 3D formatuan film luzea

Aiert Goenagak eta Jon Urrazak 'Morritson eta Gartzia' aurkeztuko dute Irudien gunean



## Liburu eta Disko Azoka, Basterretxearen begiradatik

Aurten, Nestor Basterretxea artista bermeotarrari eskatu dio Gerediagak azokarako kartela sortzeko



Nestor Basterretxea (Bermeo, 1924) artista ezagunak sortu du aurten 47. Liburu eta Disko Azokarako kartela. Gaurkotasuna eta etorkizuna uztartu gura izan ditu kartelean: "Erabili dudana da, gure herriko sorkuntzaren azken lanak ezagutaraztea helburu duen azokan, gaurkotasuna eta etorkizuna daudela presente".

Kartela sortzeko prozesuari buruz adierazi duenez, "azken aldiaren lantzen ari naizen teknika baliatzea pentsatu dut. Dagoeneko erabiltzen nabilen teknika da, baina gehiago sakontzea gura dut". Matxuratuta dagoen telebista batetik sortu zaiola ideia azaldu zuen kartelaren aurkezpenean: "Sei bat hilebete eman ditut horrela lan egiten. Telebista matxuratzen denean pantailako

koloreei argazkiak egiten dizkiet. Izan ere, kolore aberastasun ikaragarria dago horretan. Argazkia handitu eta collage bat egiten dut, koloreak espazio geometrikoetan sartzen ditut ondoren". Horrela sortu du Basterretxeak egunotan alde guztietan dagoen azokako kartelaren irudia.

Basterretxeak dioenez, aurretik egiten zuten kartelekin teknika ez zen bereziki berritzailea: collage-a edo marrazkia erabiltzen zituen. Euskal antzerki taldeen, liburu eta diskoen azalerako ilustrazioak egin izan ditu. Azkena, Bedaxagar kantariaren diskoaren azala izan da. Basterretxeak azaldu duenez, "asko miresten ditut poeta herrikoiak".

## "Ohorea da"

Azoka ezagutzen du Nestor Basterretxeak. Birritan egin du bisita azokara, eta adierazi duenez, "benetan harritu ninduen azokaren dimentsioak: jende kopurua, jendeak azokarekiko duen lotura... Horrek guztiak asko harritu eta poztu ninduen". Hala ere, azokako kartela egitea ez zitzaion sekula bururatu: "Ez nuen sekula pentsatu egunen batean azokako kartela egingo nuenik eta, horregatik, benetan ohorea da".

"Erabili dudana da, azokan, gaurkotasuna eta etorkizuna daudela presente"





**INMOBILIARIA SAN FAUSTO, S.A.**  
**parte har ezazu zozketan**

PROMOZIO BERRIA TRAÑA-ERROTAN (Matiena)  
2 eta 3 logelako udal etxebizitza tasatuak  
**174.600 eurotik aurrera**

Izen-ematea  
2013ko  
otsailaren  
1a arte


Tel.: 630 993 167 - 94 457 17 00

Informazio bulegoa obran bertan

[www.sanfausto.es](http://www.sanfausto.es)



# 47. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA



*mesfor basterretxea*

2012KO ABENDUAREN 6TIK 9RA



**EROSKI**

zurekin

# "Erromintxelak erakusten du posible dela elkarbizitza"

Ijitoen kulturaren alde lan egiten duen Kale dor Kayiko elkartearen presidenteordea da Oscar Vizarraga. Erromintxela hizkeraren inguruan jardungo du, abenduaren 9an

## Zenbat denbora daramazue azokarekin elkarlanean?

Hiru urte daramagu Durangoko azokan parte hartzen. Gerediagari proposamena egin genion aurtengo azokaren kultura gonbidatua kultura ijitoa izan zedin, eta oso ondo hartu zuten. Ilusio handiarekin dihardugu alde biek.

## Zelan hartu zuen Gerediagak zuen proposamena?

"Arrazoia!", izan zen erantzuna. Penintsulako herriak, zein munduko herrialdeak gonbidatu dituzte azken urteetan. Euskaldunekin bizitzen 600 urte daraman kultura ez ahazteko eskatu genien.

## Elkarteko jendeak zelan hartu zuen azokaren parte izatea?

Ilusio handiarekin. Kale dor Kayiko elkartearen dihardugunok oso inplikaturik gaude gure herriarekin eta kulturarekin. Euskal Herriko ijitoen elkarte guztiak batzen dituen batzordeak ere parte hartu du antolakuntzan, eta beraz, herritar askorengana ailegatu da parte hartzeko proposamena.

## Mahai-inguru batean ere parte hartuko duzu zuk, gainera.

Bai, egunero azokan egoteaz gainera, abenduaren 9an Erromin-

txelari buruzko mahai-inguruan parte hartuko dut. Azokako gure parte-hartzearen zutabeetariko bat izango da hori. *Erromintxela, orain edo sekula ez izenburua* ipini diogu mahai-inguruari. Sinbiosi kulturala posible dela erakusten du erromintxelak: euskaldunaren eta ijitoaren nahasketaren adibidea da hizkera hori.

## Erromintxela euskaldunek ulertu ez zezaten ijitoek sorturiko hizkera dela idatzi dute zenbaitek...

Izan liteke euren kontra zegoen eta aurreiritziak zituen gizarte batean bizirauteko, euren identitatea gordetzeko defentsa moduan erabili izana erromintxela ijitoek. Zapaldutako herria izan da beti ijitoa, ijitoak ez dira zapaltzaile izan. Gizartearen aurreiritzi eta beldurren biktima izan da herri ijitoa. Elkarrekin sortu arte iruntzi egin behar izan ditugu aurreiritzi horiek. Euskal kultura ere ez da ijitoengana asko hurreratu, askotan aurreiritzi oihartzuna eman die.

## Euskaldunok ere badakigu zein zaila den kultura minorizatu bat iraunaraztea.

Bai. Beste herrialde batzuetan erromintxelari buruz berba egin dugunean, asko harritu dira ikerlari guztiak. Ijitoek eurenak ez diren kultur ezaugarriak bere egitea onartu dute, eta munduko kasu bakarra dira: ijitoak bere kulturaren parte bat laga du euskararen alde. Oso gauza berezia da hori.

## Nortzuk hartuko duzue parte mahai-inguruan?

Josune Muñoz euskal filologo eta



Eskolastikako kideak, Nicolas Jimenez ikerlariak, Jose Luis Lizundiak eta neuk. Erromintxela dialekto bat, baina talde etniko bat ere badela azaldu gura dugu, besteak beste, mahai-inguru horretan: talde etniko bat eratu du erromintxelak. Kultura ijitoaren ezagutzea eta jarrera sozial batzuk aldatzea ekarri du, euskaldunaren alde. Ijito euskaldunen gizarte taldea eratu du. Ijitoen eta euskaldunen antza daukate, baina beste zerbaitek dira.

## 1995ean egindako ikerketa hartuko duzue domekako mahai-inguruaren oinarritzat?

Bai, baina egin genuen ikerketa horren aurkezpena egitea baino, gura duguna da aldarrikatzea, ikerketa hori amaitu eta publiko egin behar dela. Erromintxela fenomeno soziolinguistikoa erakusten du posible dela elkarbizitza, eta posible dela mestizajea. Bestalde, ikerketa bera eskuratu gura duenak, kultura ijitoaren azokako erakusmahaietan eskuratu

## ahal izango du, *pen drive* batean. Zein da erromintxelaren egoera gaur egun?

Egia da hiztun gutxi daudela, baina bizirik dago. Hiztunak egotea arrakasta da berez, ikertu daitezkeenak. Aldarrikatzen duguna da, urgentziakoa dela ikerketa hori bizirik dagoen artean amaitzea.

Urgentziakoa da ikerketa hizkera bizirik dagoen artean amaitzea

## Ijito gazteek ezagutzen al dute erromintxela?

Kultura ijitoari buruz gabiltzanean, kontuan hartu behar da ijito gehienek, gure bizimoduagatik, ez dutela unibertsitatean ikasi. Askok ez dira ohartzen hizkuntza

hori mantentzeak daukan garrantziaz. Euren identitate zeinu bat delako hitz egiten eta transmititzen dute.

## Asko geratzen zaigu elkarrengandik ikasteko.

Elkar ezagutzea falta zaigu. "Elkar ezagutzeari elkar aintzatestea gehitzen badiogu, errespetua da emaitza", dio gure esloganak. Elkar ezagutzeko aukera da Durangokoa. Beste gauza bat da aintzatestea. Horretarako borondatea behar da, eta horixe eskatzen diegu bai *payoei*, bai *ijitoei*. Ijitoak *payo* guztiak ez direla gurekin txarrak izan konturatzea ere nahi dugu. Felipe VI. ak XVIII. mendean ijitoen kontra egindako Sarekada Handian, injustiziaren kontra altxatu ziren hainbat *payo*: euren etxetan hartu zituzten ume ijitoak eta euren abizenak eman zizkieten. Historia ezagutu behar dugu guztiok. Zoritxarrez, aurreiritzi asko daude oraindik. Asko dago egiteko, eta guregan dago aldatetarako indarra.

Euskaldunaren eta ijitoaren nahasketa da Erromintxela

**ITURRIAGA SUKALDEAK**  
Gremioen koordinaketa

Trañatxoste, 2 - 46220 | Abadiño - Tif. | Fax.: 94 655 07 22 - 605 740 176

## EGITARAUA

### Abenduaren 6an

- 12:00 *Nire kera zurearen palian dao* ikuskitzuna, Areto Nagusian. (Parte hartzaileak: Txalapatariak; Las Fanis, Vembrulú eta Bienmesabe taldeak; eta Arkaitz Estiballes eta Amets Arzallus bertsolariak).
- 15:30 Ijitoen tailerrak: txapak, margoak... Saguganbaran.

### Abenduaren 7an

- 15:30 Ijitoen tailerrak: txapak, margoak... Saguganbaran.
- 15:30 *Emakume ijitoaren aldarria* berbaldia, Areto Nagusian.
- 16:00 *Latcho Drom* filmaren emanaldia, Irudienean.
- 16:30 Emakume ijitoen ipuin kontaketa saioa, Saguganbaran.
- 22:30 *Nire kera zurearen palian dao* ikuskitzuna, Plateruenean. (Txalapatariak; Las Fanis, Vembrulú eta Bienmesabe taldeak; eta Arkaitz Estiballes eta Amets Arzallus bertsolariak).

### Abenduaren 8an

- 11:00 Emakume ijitoen ipuin kontaketa saioa, Saguganbaran.
- 15:30 Ijitoen tailerrak: txapak, margoak... Saguganbaran.

### Abenduaren 9an

- 15:30 Ijitoen tailerrak: txapak, margoak... Saguganbaran.
- 17:15 Flamenkoari buruzko berbaldia, Areto Nagusian.
- 18:00 Erromintxelari buruzko mahai-ingurua, Areto Nagusian. Josune Muñoz, Oscar Vizarraga, Nicolas Jimenez eta Jose Luis Lizundia.



Z E L E T A B E  
A u z o a P r o m o c i o n e s S . A .



## 1, 2 eta 3 gelako etxebizitzak Kalitaterik oneneko materialak

- Etxebizitza guztiek honakoak dauzkate:
  - Sukalde modernoak behar den guztiarekin.
  - Haritzeko tarima eta barruko atek. Ateen pieza metalikoak kromatuta.
  - Horma-armairuak. Barrualdea hornituta.

**Erosketa aukeradun alokairua**



Iturritxo, 7 behea eskuma • 48220 Abadiño  
Tel./Fax: 94 466 89 56

[www.zeletabe.com](http://www.zeletabe.com)  
[zeletabe@zeletabe.com](mailto:zeletabe@zeletabe.com)

# Kultura ijitoa eta euskalduna ikuskizun batean fusionatuta

Bertsolaritza, txalaparta, eta flamenkoaren hainbat estilo nahastuta sortu dute azokarako, 'Nire kera zurearen palian dao' ikuskizuna

**E**romintxelazko izenburua ipini diote Durangoko Liburu eta Disko Azokarako kultura ijitoa eta euskalduna nahastuz sortu duten ikuskizunari: *Nire kera zurearen palian dao* deitu dute ikuskizuna, hau da, "Nire etxea zurearen ondoan dago".

Abenduaren 7an, 22:30ean, Plateruenean izango da txalapartaren doinua, bertsoak eta flamenkoa batzeturten ikuskizuna. Azokaren irekieran ere eskainiko dute, bestalde, emanaldia: abenduaren 6an, 12:00etan, Areto Nagusian.

Asier Gonzalez eta Urtzi Ugalde txalapartariak, Las Fanys, Vembrulé eta Bienmesabe flamenko taldeek eta Amets Arzallus eta Arkaitz Estiballes bertsolariak parte hartuko dute ikuskizunean.

Flamenkoaren hainbat estilo uztartuko dituzte ikuskizunean

Azokaren irekiera ekitaldian, eta abenduaren 7an, Plateruenean

Bertsolaritza eta txalaparta, eta flamenkoaren hainbat estilo uztartuko dituzte *Nire kera zurearen palian dao* ikuskizunean. Izan ere, flamenkoaren hainbat esparrutan diharduten hiru taldekin hartuko dute emanaldian: rumba eta hip hop-a egiten duen Zeberrioko Las Fanys bikoteak, pop flamenkoan diharduen Vembrulé taldeak, eta kantu flamenko ezagunen bertsioak egiten dituen Bienmesabe taldeko flamenko kantariak, gitarrista eta perkusionistak ariko dira Plateruenean.

Gitarren eta kantareen doinu flamenkoei berbak eta erritmo berriak ipiniko dizkiete Gau Ijito horretan, bestalde, Amets Arzallus eta Arkaitz Estiballes bertsolariak eta Asier Gonzalez eta Urtzi Ugalde txalapartariak.



## Zein izango da Durangoko azokaren barruko Sim Romi elkartearen parte-hartzea?

Bi espazio desberdinetan hartuko dugu parte. Batetik, 2010ean Bizkaiko Aldundiaren Berdintasuna saria jaso zuen proiektuari buruzko berbaldia eskainiko dugu. Gazteekin berdintasuna lantzeko egiten dugun lana azalduko dugu. Bestetik, artisautza azokaren barruan hainbat erakustaldi egingo ditugu: zumezko saskiak zein kafea zelan egiten zituzten, edota antzinako emakume ijitoek zelako arropa erabiltzen zuten erakutsiko dugu, besteak beste. Ijito herria su baten inguruan zelan bizi zen ere erakutsiko dugu.



Berdintasuna saria jaso zuen proiektuari buruzko berbaldia eskainiko dugu



## Zertan datza zuen elkarrekin gazteekin egiten duen lan horrek?

Proiektua 16 eta 35 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta. Bost tailer burutu ditugu Bilbon, familiarren barruko rolen inguruan gogoeta egiteko. Etxe barruko erabakiak hartzea, lanen banaketa, etab. lantzen dugu gazteekin.

## Zelako emaitzak izan dituzte?

Oraindik ezin dugu esan jarrera aldaketa handi bat gertatu denik, baina aldaketarako prozesua abiatu dugu. Uste dut oso esperientzia positiboa dela, gazteak konurtzen hasi baitira emakumeak aurrera egingo duela.

## Elkarrekin sortu zenutenetik, zer aurrerapauso eman dira?

Nire ustez, aurrerapauso garran-

# "Hazi egin da emakume ijitoen parte hartzea gizarteko hainbat esparrutan"

Kale dor Kayiko elkartearen berdintasun saileko koordinatzailea eta Sim Romi emakume ijitoen elkartearen presidentea da Rosa Jimenez. Hitzaldia eskainiko du, abenduaren 7an



tzitsua izan da, esaterako, gizarteko hainbat esparrutan emakume ijitoak daukan parte-hartzea asko hazi dela. Hainbat arlotan zer egin nahi duen erabakitzen hasi da emakumea: arlo akademikoan, esaterako. Bestalde, gogoetarako espazioak sortu beharraz eta este-reotipoak apurtu beharraz ere ohartu da emakume ijitoa.

## Elkarrekin emakumeentzako erreferentzia gune bilakatu da?

Bai. Dena den, Bilboko Txurdinaga auzoko gure bulegoan batu baino gehiago, bertatik bultzatzen ditugun programetan parte hartzen dute emakumeek; esate-

rako, aisialdiko programa bat daukagu martxan: askok ez dakigu aisialdiaz gozatzen. Emakume ijitoen partetik, aldaketa igarri dugu zentzu horretan. Zer egin nahi duen erabakitzeko autonomia



Emakumearen paperak garrantzi handia dauka hezkuntzan



eskuratzen doa emakume ijitoa, apurka-apurka.

## Emakumearen autonomia eta independentzia lantzeko indar berezia egiten duzue?

Bai, hain zuzen, herri ijitoan aldaketa handienak bultzatu ditza keena delako emakumea. Familiarren zutabe garrantzitsuena gara, eta guk aldaketarako indarra egiten badugu, horrek gizarte osoari eragingo dio. Emakumeak garrantzi handia dauka hezkuntzan, balioen transmisioan, eta abarrear. Emakumea, ijitoa eta formazio akademikorik gabekizateak orain arte ekarri digun dis-

kriminazio hirukoitzak desmuntatzen hasteko garaia da.

## Emakume ijitoek Durangoko Azokan edukiko duten parte-hartzearen beste adibide bat, ipuin kontalaritza saioa izango da. Umeei zuzenduta, Saguganbara gunean egingo duzue, ezta?

Bai, Soraya Motos elkartearen kideak idatzi duen *Jani eta ilargia* liburuan oinarrituriko ipuin kontalaritza saioa eskainiko dugu. Ipuin ijitoen inguruko liburu da *Jani eta ilargia*. Sei ipuin biltzen ditu liburuak, eta gaztekeraz, euskaraz eta ijitoeraz kaleratu dute. Amari entzundako ipuinekin egin du Motosek liburu. Saio bi eskainiko ditu, abenduaren 7an goizean eta arratsaldean.

## Zelan hartu duzue Durangoko Azokan parte hartzeko aukera?

Euskaldunontzako hain inportantea den ekintza konpartitu ahal izatea itzelezko poztasuna da guretzat: oso gauza polita da batzen gaituen hori elkarrekin gozatzea.



'Jani eta ilargia' liburuan oinarrituriko ipuin kontalaritza saioa eskainiko dugu





Goi-mailako  
elikagaiak  
Alimentos de  
calidad superior

# Eusko Labela duten kalitate goreneko elikagaiak Benetakoaz gozatu

Eusko Label produktuaz gozatzea, hain zuzen ere, gure ekoizleek beren lanean jartzen duten arreta balloesten jakitea da, ingurune pribilegiatu parekaezin bat iraunarazten jakitea da, goi mailako kalitate ziurtatua duten produktuak aukeratzen jakitea da... eta benetakoaren zaporeaz gozatzen jakitea da.

Gehiago jakiteak gehiago gozatzea baitakar.



[www.benetakoazgozatu.com](http://www.benetakoazgozatu.com)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
INGURUMEN, LERIALDE,  
PLAZAINTZA, NEKAZARITZA  
ETA ABANTZA SAIA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,  
AGRICULTURA Y PESCA

## hazi

Landa eta itsas ingurunearen  
garapenerako Eusko  
Jaurlaritzaren Korporazioa

Corporación del Gobierno  
Vasco para el desarrollo  
del medio rural y marino



# LA BOUTIQUE DEL COLCHON

## ATSEDENERAKO PRODUKTUEN ZENTRO ESPEZIALIZATUA

Atsedenerako produktuen aukeraketa onena.  
Kalitate-prezio erlazio hobereena.



Juan Mari Altuna, 18 Landako - Durango  
Tel.: 94 603 05 83

# Aurrera egiteko bidelagun berri bila jarraitzen du azokak

Azokideei eskerrak emateko ekitaldia egingo du Gerediagak Durangoko Azokako Areto Nagusian, abenduaren 9an

**B**idelagun berriak ditu Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokak: Azokideak. Azokak aurrera egiteko beharrezko duen finantziarioa eta babesa eman dute hainbat enpresa txiki eta ertainek, eta leku propioa izango dute aurten, Durangoko Azokako horma nagusian; "ospakizunaren parte" bilakatuko dira, Azokide kanpainaren aurkezpenaz azaldu lez. Horiei eskerrak emateko ekitaldia ere egingo du Gerediaga elkarteak, abenduaren 9an, Azokako Areto Nagusian.

Egoera ekonomikoak izan du eraginik Durangoko Azokan ere. Ez dira sasoi onak kulturagintzarako Gerediagako gerente Aitziber Atorrasagastik aitortu duenez: "Diru laguntza publikoak jaitsi egin dira eta gizarteari gero eta gehiago inplikatzeko eskatzen zaio, bai sormenari dagokionez, bai ekonomikoki". Urriari abiatu zuten ekimena eta "oso pozik" daude jasotako erantzunagaz, ekimena-

ren zabalkundea egiteaz arduratu den komertzialak azaldu duenez: "Bat egin duenak oso modu militantean egin duelako".

## "Propio lez sentitu dute"

Laguntza era uniformeetan banatu da, baina, Durangaldean oso handia izan da eragina, "propio mo-

Azokan bertan laguntza bonoa eskuratu ahal izango da

Gerediaga "oso pozik" dago jasotako erantzunagaz

duan sentitu dute azoka". Deba-Goiena, Debarrena, Lea-Artibai eta Arratia Nerbioira zabaldu dute kanpaina. Komertzioek erkarpen finko batez lagundu dute, eta enpresek langile kopuruaren arabera.

## Laguntza bonoak eskura

Hala ere, norbanakoek ere izango dute aukera Azokide ziurtagiria lortzeko: azokan bertan, laguntza bonoak egongo dira eskuragai. "Norbanakoak, isilean, emandako laguntza ere oso garrantzitsua da, benetan", nabarmendu du Atorrasagastik: "Zentzurik onenean, azoka euren dela harrotasunez erakusteko, proiektua euren ere badela sentitzeko aukera zabaldu gura dugu Azokide kanpainagaz honegaz".

Industria eta finantziario publikoak ditu diru iturri azokak. Eta horregaz bat egiteko aukera zabaldu gura die Gerediagak ostalari, enpresa txiki eta ertainei zein nor-



banakoei. "Gizarte eredu aldatu dela, krisi ekonomikoa dela, jaitsi egin dira babesle handiak eta horrek eragina izan du Azokan", dio Atorrasagastik.

Azokari eutsi eta bere bideari jarraitzeko aukera izateko, sarea sendotu guran sortu da Azokide. "Inoiz Azoka galtzeko arriskuan balego, sare sendo bat sortzea, jausi ez dadin. Mezu hori zabal-

du gura izan dugu eta jaso egin dute", dio arduradunetako batek. "Bizi dugun egoera ekonomikoan, bakoitzak ahal izan duen neurrian lagundu du". Kanpaina 2013ko azokara arte luzatuko da, gutxienez. Hala ere, irauteko asmoagaz jaio da, "sarea lotzeko ekimenak azokatik harago joateko asmoa" dute, bultzatzaileek azaldu dutenez.



# Txomintxo eta Perutxoren abenturak Durangoko Azokan

'Txomintxo eta Perutxoren abenturak' liburua argitaratu dute Txomin eta Peru Magdalena anaia durangarrek azokarako

*Txomintxo eta Perutxoren abenturak* liburua kaleratu dute Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokarako Txomin eta Peru Magdalena anaia durangarrek. Zortzi urtetik gorako umeei zuzendurikoa da liburua, eta Durangoko anaien testuak eta Iosu Mitxelena-ren ilustrazioak batu ditu.

Iaz, *Txomintxo eta Perutxo bakarrik geratu dira etxean* ipuina argitaratu zuen Peru Magdalenak, eta oraingoan ere, pertsonaia berberen ibilerak kontatzen ditu anaiarekin batera egindako lanean. Aurrekoarekin alderatuta, ostera, *Txomintxo eta Perutxoren abenturak* liburua bost ipuin jaso ditu.

Liburua zortzi urtetik gorako umeei dago zuzenduta

Egileen izen bereko protagonistak amaren sabelean daude liburuko lehenengo ipuinean. Aurrera egin ahala, Txomintxok eta Perutxok eskolako jantokian bizi dituzten abenturak eta beste hainbat gora-behera kontatzen dituzte azken liburua honetan.

## "Ganberroagoa, beharbada"

Ipuin bakarra kontatzen zuen Peru Magdalenak *Txomintxo eta Perutxo bakarrik geratu dira etxean* lehenengo liburua hartan. "Misteriosoagoa" zen idazleak berak azaldu duenez. Txomin anaiak argitu duenez, azken liburua hau "dibertigarriagoa eta ganberroagoa da, beharbada". Azken ipuin biak "fantasiosoagoak" dira, anaia durangarrek nabarmendu dutenez.

Durangoko azokan, Elkar argitaletxearen standean egongo dira bi egileak, lan berria erakusten. Joan zen azaroan aurkeztu zuten liburua Durangoko Hitz liburudendan.

**AZOKA EGUNETAN ZABALIK!**

**EL MUNDO DEL JABON**

Uribarri, 21 (zinema aurrean)  
Tel.: 94 603 24 26  
DURANGO

**Azkonizaga**

Ortuzar auzoa, 1 • 48213 Izurtza (Bizkaia)  
Tel./Fax: 94 681 06 52  
azkonizaga@azkonizaga.com  
www.azkonizaga.com

CRUZCAMPO • HEINEKEN • BUCKLER • AMSTEL • SHANDY • PEÑAFLARA • LA ASTURIANA

**Juego bolos** *ostalua - hostal*

San Agustinalde nº 2 - 1º 48200 Durango Bizkaia  
T: 94 621 54 88 info@juegobolos.com www.juegobolos.com

**Hitz**

**liburu-denda**

artekalea 14.  
durango (bizkaia)  
info@hitzliburudenda.com  
946 810 776

# Saguganbara, irudimenez bustitako gune magikoa, haur eta helduentzat

Durangoko Azokan umeentzako plazaratzen denari tokia egingo dio Berbarok antolatutako espazioak



**A**zala eta mamia berriztuta dator Berbarok euskara elkarteak eraturako Haur Literatur Aretoa. Gaurtik aurrera Saguganbara. Irudimena askatzeko espazio propioa izango dute etxeko txikiak Durangoko Azokan, eta beraiantzako plazaratutakoak aurretik ikusteko eta gozatzeko aukera. Ipuin kontalariak, pailazoak, tailerrak, antzerkia, jolasak, musika ikuskizunak... Denetarik egongo da Saguganbaran, gaur hasi eta abenduaren 9ra arte.

Durangoko Azokak urte guztian izandako eboluzioak, eta ondorioz, Haur Literatur Aretoak ere bai, bultzatu du Berbarok Saguganbara sortzera: "Izena zaharkitu

tuta geratu da eta ez ditu espazioaren edukiak eta helburuak egoki islatzen", dio Oihane Barrutia Berbaroko kideak. Hartara, "berba polita" eta "magia kutsua" duena aukeratu dute: Saguganbara, leku erakargarria ume zein helduentzat.

Etxeko txikiarentzako sortutako produktu, ikuskizun eta tailerren txokoa izan gura du Saguganbarak, Barrutiak azaldu duenez, eta "ume zein gazte, nagusien transmisioaren bidez, euskal kulturaren zati batera hurreratzeko gaituen gunea". Sortzaileen eta erabiltzaileen arteko harreman zuzena eskainiko du Saguganbarak, "sekretuz, irudimenez eta magiaz gozatzeko mundua ez eze", nabarmendu du Berbarok elkartearen kideak.

Durangoko Azokan umeentzako plazaratzen denari lekua egin gura dio Saguganbarak. Hala, hainbat arlo jorratuko dituzte edukien artean: komikigintza, ilustrazioa, antzerkia, ipuin kontaketa, liburuak, musika, jolasak, filmak... Horretarako hiru espazio izango ditu aurten gaztetxoentzako guneak.

**Hiru espazio**  
Batetik, tailer irekiak egiteko gunea izango du Saguganbarak; eta, bestetik, tailer zehatzei lekua egiteko Areto Txikia. Berbaroko Oihane Barrutiak azaldu duenez, komikigintza, bikoizketa tailerra, ilustra-

zio tailerra, mahai jolasen tailerra, eta *Liburu bat, mundu bat* ekimena garatuko dira bertan. Antolatuzaileek gogorarazi dute beharrezkoa dela aurretik izena ematea, eta hurrek beti izan behar dutela heldu baten laguntza.

Umeek eta helduek elkarrekin hainbat arlo jorratzeko aukera dute

Ume eta gaztetxoei zuzendutako aurkezpenak, ikuskizunak eta ekintza bereziak egiteko Areto Nagusi bat ere izango du Saguganbarak.

**Transmisioaren garrantzia**  
Barrutiak adierazitakoaren arabera, iaz hasi ziren Berbaroko kideak tailerrei garrantzia ematen. Eta

horien arrakasta ikusita, aurten, tarte berezia eskaini gura izan die horrelako tailerrei. Berbarok elkarteok nabarmendu dutenez, helduen eta ume zein gazteen arteko transmisioa lantzen da hala, eta garrantzitsua dela jo dute. Gainera, umeek eta helduek hainbat arlo elkarrekin jorratzeko eta gozatzeko aukera eskaintzen dute tailer horiek.

**Hainbat bisitari**  
Saguganbaratik hainbat lagun igaroko dira datozen egunotan. Pirritx, Porrotxeta Marimotots euren ikuskizun berria erakustera etorriko-

Umeentzako plazaratutakoari lekua egin gura izan diote

Saguganbarak hiru espazio desberdin izango ditu





dira, baita Bazen behin clown-eko lagunak ere. Toti Martinez de Lezea idazlea *Nur eta dortoken uhartea* liburu berria aurkeztera etorriko da eta Trini Mikelarena *Egan egiten ez zekien txantxangorria* ipuina erakustera. *Titiriteroen ipuinak* ezagutzeko aukera ere eskainiko zaie haur, guraso eta hezitzaileei. Horiez aparte, Poxpolo ta konpainia pailazoak ere bertaratuko dira, *Segi jotzen!* DVDa aurkeztera.

Ijitoen tailerrak egongo dira umeentzat egunero, 15:30ean

Saguganbaratik hainbat lagun igaroko dira egunotan

**Ijitoen kultura erakusgai**

Ijitoen kultura da aurten azokako kultura gonbidatua. Eta, Saguganbaran ere izango du bere tartetxoa. Izan ere, egunero egongo da ijitoen tailerretan parte hartzeko aukera. Literatura eta irakurzaletasuna ditu oinarri Saguganbarak. Ezin ahaztu, beraz, irakurketa librera-ko tarreak.

# Saguganbara egitaraua

## Abenduaren 6an

### Saguganbara Areto Nagusian

12:00 **Ikuskizuna eta aurkezpenak:**  
 \**Sentitu, pentsatu, ekin!* disko sinfonikoa  
 \**Zazpikoloroa* DVD-a  
 \**Zazpikoloroa* eta *Maite Zaitut* ipuinak  
 13:30 **Film emanaldia, Zineeusyadi:**  
*Zinema Euskaraz.*  
 \**Horton* (J. Hayward eta S. Martino)  
 \**Marmaduke* (Tom Dey)  
 17:00 **Liburu aurkezpena: Alboka bildumako hiru album ilustratu** (4-7urte):  
 \**Ai, ai, ai!*- Yolanda Arrieta (idazlea) eta Ainara Aspiazu (ilustratzailea)  
 \**Gaua* balkoian - Leire Bilbao (idazlea) eta Eider Eibar (ilustratzailea)  
 \**Sekretuaren zaporea*- Ana Urkiza (idazlea) eta Concetta Probanza (ilustratz.)  
 18:30 **Liburu aurkezpena:**  
*Nur eta dortoken uhartea* (8-12 urte) Toti Martinez de Lezea (Erein)

### Saguganbara Hall-ean

15:30 **Kultura gonbidatua:** ijitoen tailerrak: txapak, margoak... (adin guztiak).  
 \*Gainontzeko tarreetan irakurketa libre, Saguganbarako Areto Nagusian.

## Abenduaren 7an

### Saguganbara Areto Nagusian

11:00 **Ikuskizun musikatua:** *Marta Macozzi* Bazen behin clown (3-10 urte)  
 12:00 **Ipuin kontaketa:** *Kimutx: izaki mitologikoen eskolan ikasiz eta abestuz* (0-8 urte).

16:00 **Kultura gonbidatua:** emakume ijitoen ipuin kontaketa  
 17:30 **Liburu aurkezpena:**  
*11 Kantatzeko* (Lanku)

### Saguganbara Hall-ean

15:30 **Kultura gonbidatua:** ijitoen tailerrak: txapak, margoak... (adin guztiak).  
 \*Gainontzeko tarreetan irakurketa libre, Saguganbarako Areto Nagusian.

### Saguganbara Areto Txikian

11:00 **Komikigintza tailerra** (8-12 urte). Izena emateko, 11:00k arte.  
 16:30 **Euskarazko jolasen tailerra** (3-6 urte, Ikaselkar).  
 18:30 **Euskarazko jolasen tailerra** (6-10 urte, Ikaselkar).

## Abenduaren 8an

### Saguganbara Areto Nagusian

11:00 **Kultura gonbidatua:** emakume ijitoen ipuin kontaketa:  
 12:00 **DVD aurkezpena:** *Segi jotzen!* Poxpolo ta konpania (3 urtetik gora).  
 16:00 **Liburu aurkezpena:** *Hegan egiten ez zekien txantxangorria* (8-10 urte, Trini Mikelarena).  
 17:30 **Liburu aurkezpena:** *Txantxariak* (3-10 urte, Urtxintxa eskola)  
 18:30 **Ipuin kontaketa eta tailerra:** *Titiriteroen ipuinak* (haur, guraso eta hezitzaileentzat, Urtxintxa eskola)  
 \*Gainontzeko tarreetan irakurketa libre, Saguganbarako Areto Nagusian.

### Saguganbara Hall-ean

15:30 **Kultura gonbidatua:** ijitoen tailerrak: txapak, margoak... (adin guztiak).

### Saguganbara Areto Txikian

11:00 **Liburu bat mundu bat tailerra** (0-3 urte, Mestiza elkarte). Izena emateko 11:00k arte.  
 12:00 **Liburu bat mundu bat tailerra** (3-5 urte, Mestiza elkarte). Izena emateko 12:00k arte.

## Abenduaren 9an

### Saguganbara Areto Nagusian

11:00 **Aurkezpena:** Olentzero (3-6 urte, Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzua)  
 12:00 **Ipuin kontaketa:** Zu eta ni, bi begi nini (Maite Franco) (4-7 urte).  
 16:30 **Ipuin kontaketa:** Mundua koloretan (Txatxilipurdi elkarte) (0-5 urte).  
 17:30 **Liburu aurkezpena:** Txantxariak (3-10 urte, Urtxintxa eskola)  
 18:00 **Ipuin kontaketa** (3-7 urte)

\*Gainontzeko tarreetan irakurketa libre, Saguganbarako Areto Nagusian.

### Saguganbara Hall-ean

15:30 **Kultura gonbidatua:** ijitoen tailerrak: txapak, margoak... (adin guztiak).  
 \*Egunean zehar bestelako tailerrak, Saguganbarako Hall-ean.

### Saguganbara Areto Txikian

11:00 **Ilustrazio tailerra** (3-5 urte). Izena emateko 11:00k arte.  
 16:00 **Ilustrazio tailerra** (6-8 urte). Izena emateko 16:00k arte.

# Diziplina anitzeko zentro psikoedukatiboa

Haur eta nerabeek garapen osoan zehar izan ditzaketen beharriazaneiei erantzuna ematen diegu.

## ZERBITZUAK:

- Arreta goiztiarra
- Laguntza psikoedukatiboa
- Logopedia
- Fisioterapia
- Psikomotrizitatea
- AISIKA (aisialdi eta astialdiko programa)
- Jarrera arazoentzat tratamendu praktikoa

# ORAIN, DURANGON ERE BAGAUDE!



# “Mezu positiboa zabaldu gura dugu; krisitik irtetea gure esku dago”

Jabier eta Koikili Lertxundi aita-emeek krisiari aurre egiteko aholkuak batu dituzte



erabakien atzean pertsonak daude eta pertsona horiek egoerari aurre egiteko kapaz direla sentitu behar dute. Beraz, autoafirmazio prozesu batetik abiatuta, liburuak kementa eta adorea hori lan esparrura eroateko ausardia txertatu gura dio irakurleari: “Oreka pertsonala aurkitzen duena, profesional hobea izango da”, laburbiltzen du Koikili Lertxundik. Era berean, elkarlana eta enpresaren antolaketa proposa ere azpimarratzen dituzte: “Lan bakoitzak nortasun jakin bateko arduraduna eskatzen du. Garrantzitsua da nortasunak aztertu eta liderrak ondo aukeratzea.

“Oreka pertsonala aurkitzen duena profesional hobea izango da”

“Elkarlana ere funtsezkoa da lan arloan; giro egokia sortu behar da”

Baina arduradunek ezin dute ezer egin bakarrik. Elkarlana ere funtsezkoa da eta horretarako giro egokia sortu behar da. Langileei ezagutza eta gaitasunak handitzeko aukerak eman behar zaizkie, enpresako parte sentitu behar dira’.

Liburuak hiru atal nagusi ditu. Lehenengoan, krisiaren inguruko diagnostiko teorikoa jasotzen da: krisi ekonomikoa, politikoa, gizarte krisia... Bigarren atalak egoera horri zelan aurre egin dakioken azaltzen du, “soluzio posibleak eskaintzen ditu”. Azkenik, eskaini diren irtenbideak zergaitik diren bideragarriak arrazoitzen du hirugarren atalak: “Liburuaren izenburua arrazoitzen du, hau da, zergatik dagoen gure esku krisitik irtetea.

Azken egunetako laino beltzek eguzkia nola, antzera ilundu ditu krisiak herritar askoren esperantzak. Arlo pertsonalean gurdikada bat adibide zerrenda daitezke, langabeziatik hasi eta aterperik gabe geratzeko arriskuraino. Lan esparruan, enpresa asko eta bertako langileak ziurgabetasun konstante batean kateatuta daude, hurrengo egunak zer ekarriko dien asmatu ezinda. Testuinguru horretan, Jabier Lertxundi eta Koikili Lertxundi aita-emeek mezu positibo bat zabaldu nahi izan dute *Krisi madarikatua gaingintzeko hainbat ideia* liburuan: “Krisitik irtetea gure esku

Itzarri Consulting-ek argitaratu du eta Totoan elkartearen laguntza izan dute

“Ohiko arazoan aurrean pertsonak gai dira irtenbideak bilatzeko”

dago”. Abenduaren 7an, 10:30ean, aurkeztuko dute liburuak Euskal Liburu eta Disko Azokako areto nagusian.

Ekonomian doktorea eta soziologian lizentziatua da Jabier Lertxundi, liburuaren idazlea, eta euskarazko itzulpenaz Koikili Lertxundi arduratu da, Itzarri Consulting-eko zuzendaria. Hizkuntza bietako testuak liburu berean batu dituzte, eta salgai egongo da azokan. Itzarri Consulting-en bidez argitaratu dute liburuak, baina Totoan Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioak maketazioan eta beste hainbat zereginetan lagundu die.

Koikili Lertxundik liburuak argitaratzeko arrazoiak azaldu ditu: “Krisian murgilduta gauden sasoi honetan, mezu positibo bat gizarteratzea pentsatu genuen. Gure ustez, krisitik irtetea gure esku dago. Beren eguneroko jardunean suertatzen zaizkien arazoan aurrean, pertsonak gai dira irtenbideak bilatzeko”.

**Oreka pertsonala eta lana** Liburuak arlo teorikoa eta gizatiarra bateratzen ditu. Alde batetik, gaur egungo egoeraren azterketa zurrunik abiatuz, lan esparruan aplikatzeko adibide praktikoak eta aholkuak eskaintzen ditu. Baina

## Gerra Zibilaren sasoiko euskal sortzaileak gogoratuko dituzte

Areto Nagusian Estepan Urkiaga *Lauaxeta*, Errose Bustintza eta beste hainbat sortzailearen testuak irakurriko dituzte zapatuan



Errose Bustintza, Julene Azpeitia, Estepan Urkiaga eta Jose Zapiain

Gerediaga elkartek Gerra Zibilaren sasoiko euskal sortzaileak gogoratuko ekitaldia egingo du zapatuan, 12:30ean, azokako Areto Nagusian. Gerediagaren inguruko hainbat lagunek sasoi hartako sortzaileen testu, olerki eta bertsoak irakurri edo abestuko dituzte: “Beste belaunaldi batzuek euren testuei ahotsa jartzen dietela eta oraindik gure oroimenean bizirik dirautela aldarrikatu nahi dugu”, adierazi du Gerediagako Jon Irazabalek.

Sortzaile batzuk Durangaldekoak dira; esaterako, Errose Bustintza edo Julene Azpeitia. Euskal Herriko hainbat sortzaile ere gogoratuko dituzte: Donostiako Zapiain

Sortzaile batzuk Durangaldekoak dira: Julene Azpeitia eta Errose Bustintza

aita-emeak edo Estepan Urkiaga *Lauaxeta* mungiarra, besteak beste: “Hainbat sortzaile gogoratuko ditugu. Batzuk gerran hil ziren edo erbestera beharra izan zuten, edo kartzelan sartu zituzten edo fusilatu egin zituzten. Testuak edo olerkiak modu batera

edo bestera Durangaldera ekartzen saiatu dira: “Testuek Durangaldeari keinu bat egin diezaioten saiatu gara edo Durangaldea aipatzen dutenean edo Durangaldeko sasoi hartako sortzaileak aipatzen dituztenean”.

Istorio orokor bat izango da hiru ordu laurden inguru iraungo duen ekitaldiaren haria, eta istorio horren barruan, esku-hartze jakin batzuk egongo dira: bertsoak, olerkiak...

Gerediaga elkartetik aurreratu dutenez, ekitaldi joango diren lagun biri opari bat emango diete, “opari kurioso bat”, Irazabalek esandakoaren arabera.

# ZARATE ELEXPE

E R A G I L E A K

honako hau sustatzen du:



27 etxebizitza, 4, 3, 2 eta logela bakarrekoak  
Terraza handiak eta ganbarak estalkipean.  
Garaje itxi zein irekiak.

JARRI GUREKIN HARREMANETAN  
ETA EGIN ERRESERBA:

Tel.: 94 681 66 73

[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)

# EUSKAL DENDA >

## Hogei artisau berri etorriko dira aurten, Euskal Dendara



Euskal Dendak ahalegin berezia egin du aurten etorri barik zeuden artisauengana heltzeko. Urtero legez, bisitariak askotariko artisau erakustaldiekin eta lehiaketekin gozatu ahal izango dute. Aurten ijitoen artisautza ezagutzera ematen ere saiatuko dira.

**D**urangoko udaleko alkatea eta hainbat zinegotzi, Durangaldeko Amankomunazgoko presidente Oskar Zarrabeitia, eta Bizkaiko Foru Aldundiko zein Arbaso elkarteko ordezkariak batu ziren eguzten eguerdian Euskal Dendaren 17. aldia inauguratzeko ekitaldira. Aurten ijitoen kultura ezagutaraziko dute eta Kale Dor Kayiko elkarteko presidente Manuel Vizarragak ere bertatik bertara jarraitu zuen aurkezpena.

Paper birziklatuaren inguruko hiru tailer egongo dira nagusi zein gaztetxoentzat

Lehenengo Kriskitin dantza taldeko Aritz Lasargurenek hainbat dantza eskaini zizkien bertaratu ziren agintariei. Juan Antonio Aromak ipini zion doinua txistua-gaz. Ondoren, alde banatara Manuel Vizarraga eta Bernat Vidal zituela (Arbasoko lehendakaria), Aitziber Irigorasek zinta urdina ebaki zuen, Euskal Denda ofizialki irekiz.

Arbaso elkarte orain 17 urte Euskal Denda antolatzen hasi

zenetik, nobedade gehien eskaintzen dituen aldia izango da aurtengoa. Guztira, 56 artisau postu atonduko dituzte Merkatu Plazako luze-zabalean eta horietatik 20 berriak izango dira, aurretik etorri barik zeudenak. Esaterako, Bizkaiko zazpi postu berri ipiniko dituzte, Nafarroako bost eta Gipuzkoako lau. Horrez gainera, ahalegina egin dute artisau gazteek protagonismo berezia izan dezaten. Esaterako, Bermeotik Idoia Gabantxo etorriko da Gabrek izeneko postuagaz. Material birziklatuak erabiliz osagarriak egiten ditu eta Lur Barri saria irabazitakoa da. Beste adibide bat Amorebieta-Etxanotik datorren Iñaki Unanue da.

Euskal Denda artisauen eta bisitarien arteko hartu-emana sus-

| DATUAK   |
|--|
| Stand kopurua: 56  |
| Bizkaitik: 25  |
| - Durangaldetik: 8   |
| Gipuzkoatik: 14  |
| Nafarroatik: 10  |
| Ipar Euskal Herriatik: 3   |
| Arabatik: 3  |
| Bartzelonatik: 1   |
| <b>ORDUTEGIA</b><br>(abenduaren 5-9)                                       |
| <b>Egunero:</b>  |
| Goizez: 11:00-14:30  |
| Arratsaldez: 16:30-21:00   |
| *Asteazkena: 19:00etara arte   |
| *Igandea: 20:00etara arte  |
| <b>EKINTZAK</b>  |
| - Erakustaldiak: paper margotua, eltzegintza, zumezko otxaragintza, kafea. |
| - Umeentzako tailerrak: karameluak eta paper birziklatua                   |
| - Tailerrak: koadernaketa, zapi parte-hartzailea                           |
| <b>Sarreraren prezioa:</b> 1,30 euro                                       |

tatzen saiatzen da urtero. Aurten ere artisautza erakustaldiak eta umeentzako tailerrak egongo dira dendak irauten duen bost egunetan. Euskal Dendako sarreran paperagaz egindako artisau lanen gaineko erakusketa ipiniko dute.

Era berean, erakusketa horretako gune batean marmol itxurako paper-lanak egiten dituen Montse Busó y Marsá kataluniarra lanean ikusteko aukera egongo da. Erakusketaren testuinguruan, paper birziklatua zelan egiten den erakutsiko dute hiru tailerren bidez: koadernaketari eta paper birziklatuari zuzendutako tailer bana helduentzat eta paper marmortuaren inguruko gaztetxoentzat.

Urtero legez, bisitariak Euskal Dendako posturik onena bozkatzeko aukera izango du. Horrekin batera, arrakasta handiagoa duen 'artisau despistatua' izeneko lehiaketan parte hartu ahal izango du.

Euskal Dendaren informazioa: [www.euskaldenda.info](http://www.euskaldenda.info) [euskaldenda.blogspot.com](http://euskaldenda.blogspot.com)



# 17 EUSKAL<sup>®</sup> DENDA

Euskal Herriko Artisautzaren Azoka



2012  
Abenduak  
5 - 9

Durangoko Azoka Plazan  
[www.euskaldenda.info](http://www.euskaldenda.info)



# “Juan Pablo II.a Aita Santuak nire makila bi jaso zituen”

Arbasok urtero banatzen dituen sarien artean bizitza osoko dedikazioari zuzendutakoa Iñaki Alberdi makilagileak jasoko du



**Iñaki Alberdik (63 urte, Irun, Gipuzkoa) 30 urte darama euskal makilak egiten. Hasi zenetik hona makila egin ditu bere Irungo tailerrean. Horietako batzuek italdi ofizialetarako izan dira. Esaterako, Juan Pablo II.a Aita Santua izandakoarentzako makila bi egin zituen.**

**Noiz jaso zenuen sariaren berri?** Bernatek —Vidal, Arbaso elkarte-ko presidentea— deitu eta bizitza osoa artisautzan ibili naizela-eta, Artetsu saria emango zidatela jakinarazi zidan. Ez nuen horrelakorik espero. Oso pozik hartu nuen albiste.

**Euskal Dendara sarritan etorri zara zure makilak erakustera?**

“Orain hurrengo jaso dudana eskaera Australiatik izan da”

Orain ez naiz azoketara joaten. Makilak egiten hasi nintzenean inork ez ninduen ezagutzen eta Euskal Herriko hainbat azoketara joaten nintzen, nire makilak erakustera. Ondoren, apurka-apurka lana pilatzen hasi zitzaigun eta denera ezin genuenez heldu, azoketara joateari utzi nion. Gero, badakizu zer gertatzen den; azo-

ka batera joanez gero, beste toki batzuetatik ere deitzen dizute eta konpromisoak pilatu egiten dira.

**Noiz eta zergatik hasi zinen makilak egiten?**

Orain 30 urte hasi nintzen makilagintzan. Gure aita artisaua zen. Etxean betidanik ezagutu dut artisau tailerra. Gaztetan mekanika ikasi nuen lanbide eskolan. Ondoren, galdara-fabrika batean lan egin nuen urtebetez. Esperientzia horrek ez ninduen konbentzitu eta soldadutzatik bueltan, aitaren tailerrean geratu nintzen. Ipar Euskal Herriko makilagintza oso zabaldua zegoela ikusi genuen, eta gure inguruan ez zegoen makilak egiten zituen inor. Hango artisauekin hartu-emanetan ipini ginen eta

orduan hasi nintzen makilak egiten.

**Erreleboa segurtatuta daukazu.** Bai. Urte eta erdi barru jubilatuko naiz eta semeak hartuko du erreleboa. Pozgarria da. Alde batetik, negozioa martxan dago, apurka makilagintza Hego Euskal Herrian sartzen ari gara eta pena izango litzateke hori guztia etetea. Bestetik, semeak jarraituko du tradizioagaz, eta negozioa etxean gertatuko da.

**Makilagintzak badu eskaerarik?**

Hasi nintzenetik gaur arte, ni neu makilagintzatik bizi izan naiz. Ez gara aberastu, baina bizitzeko adina ateratzen dugu eta aurrera! Euskal Herri osotik egiten dizkigute eskaerak. Udan, gure lanaren berri interneten ematen hasi ginenetik mundu osotik deitu digute. Orain hurrengo eskaera Australiatik egin digute. Hego Amerikatik ere deitzen dute: Argentina, Kolonbia...

**Zergatik da hain berezia euskal makila?**

Makilak mizpirekin egiten dira. Udaberrian basora mizpira basatien bila joaten gara. Neurri egokidun materiala aurkitzen dugunean, labanagaz marka batzueki-

ten dizkiogu azalean. Horren ondorioz egurrari erliebe originalak sortzen zaizkio. Neguan moztu eta landu egiten ditugu. Hori da euskal makilaren berezitasuna, beste inon egiten ez dena. Bestalde, artisautzak duen berezitasunik handienetakoa da ez daudela berdinak diren pieza bi. Nahita ere ezingo genituzte makila berdin bi egin. Basora joan, egurrari ebakiak egin eta naturak bere lana egiten du. Ondoren, makila apaintzeko jarritzen ditugun zorroak eta gainerako detaileak ere eskuz eginak dira.

**Ohiko makilez gainera, ekitaldi ofizialetarako makilak ere egin izan dituzu.**

Juan Pablo II.a Aita Santua izandakoak nik egindako makila bi jaso zituen. Lehenengoa, sasoi hartan lehendakaria zen Carlos Garaikoetxearen eskutik hartu zuen, Loiolako Basilikara etorri zenean. Bigarrena, Arabako diputatu batek eman zion, Arabako hiru moja beatifikatzeko Vaticanora egindako bidaia batean. Zilarrezko heldulekua zuen makila hark. Espainiako erregeak ere badu nire makila bat. Euskadin lehendakaria aldatzean, batak besteari pasatzen dion makila ere neuk egindakoa da.

## Fernan Ruizek euskararen arloko saria jasoko du

Abenduaren 5ean, 19:30ean, San Agustin Kulturguneko galan Artetsu Sariak banatuko dituzte. Alberdik jasoko duenagaz gainera, beste hainbat alderdi sarituko dituzte.

Aurten sari berri bat banatuko dute. Artisautzaren zabal-kundea euskaraz egiten duten lagunak ere sarituko dituzte aurrerantzean. Aurten Berba-

ro Elkarteko Fernan Ruiz sarituko dute, Euskal Denda eta Arbaso euskaraz hedatu daitezkeen duen lanagatik: “Urte askoan eta dedikazio handiz lan egin du”, gogorarazi du Vidalek. Erakundeek zuzendutako saria Urduñako Udalak eta Olanar elkarrekin jasoko dute; hedabideena El Correok eta laguntzaren BBK Fundazioak.

## Artisauen lanabesak islatu dituzte aurtengo kartelean

Elkarren gainean jarritako eskuak artisauen lanabesari egiten diote erreferentzia

Iaz artisauen hainbat aurpegi islatu zituen kartelak eta Euskal Dendan erakusten diren produktuen atzean dauden protagonistak azpimarratu izan zituzten; artisauak, alegia. Aurten protagonista horien lanabesak islatu gura izan dituzte. Hala, Euskal Denda iragartzeko aurtengo kartelak ‘Artisautza eskura’ du leloa. Elkarrengainean ipinitako eskuek “solidaritaterik, batasuna, konpromisoa eta hurbiltasuna” islatzen dute Bernat Vidal Arbaso elkartearen esanetan. Era berean, kartelean eskuak agertzeak badu beste arrazoi bat: “Eskuak artisauen erremintak dira, eskuekin sortzen dituzte euren produktak”.

Kartelean ikusten diren eskuak denak benetako euskal artisauenak dira. Vidalek eskerrak eman

nahi izan dizkie kartela egiteko bertaratu diren artisau denek: “Ipar Euskal Herriko ere etorri zen, karteleko argazkia ateratzerako, artisauaren bat; denen lanagaz eta erantzukizunagaz egindako kartela izan da”.



## “Ijitoen komunitatea artisaua da aspalditik”

Euskal Dendak ijitoek artisautzagaz izan duten lotura ezagutaraziko du aurten

Euskal Liburu eta Disko Azoka ijitoen kultura ezagutarazten saiatuko da, eta Euskal Dendak ere bere aletxo jarriko du bide horretan. Merkatu plazako atarian Jose

Berio artisauak ijitoerazko Mitscho avile (‘ongi etorri’, euskaraz) mezuagaz egingo die ondoetorria bisitariari. Jatorri ijitoa duen artisau arabar hau Arbasoko bazki-



dea da, eta saskigintzan dihardu. Berriok bere saskirik esanguratsuenak erakutsi eta saski berriak sortuko ditu Euskal Dendak dirauen lau egunetan. Halaber, Kale Dor Kayiko kolektiboko emakumeek eskuz egindako hainbat lan erakutsiko dituzte: amantalak, zapiak, makilak...

Euskal Dendaren aurkezpenean, Kale Dor Kayiko elkartearen Manuel Vizarragak, ijitoen komunitateak artisautzagaz izan duen lotura antzinakoa dela adierazi du: “Sarritan, gaztetxo nintzenean, erreka ondoan geundenean, nire aitak egur zuntzak hartu eta saskiak egiten zituen ondoren saltzeko. Herririk herri, denetarik tramankuluak ere konpontzen genituen. Horrela izan da ehundaka urteetan. Hori da artisautza. Ijitoen komunitatea artisaua da betidanik, eskuekin egindako lanagaz bizi izan gara. Beraz, gaur hemen neure saltsan nagoela esan dezaket”. Euskal Denda esperientziak trukatzeke toki aproposa dela dio: “Ez gaude elkarrengandik hain urrun. Guneak konpartituz hartu-emanak sendotu genitzake”.

..gertuago

..kalitate gehiago

..berme osoarekin

..bitartekari barik

..errezago

..freskoago

**Felix  
Arkarazo  
Aktorea**

**nik**

**www.oizegin.com**

**atarian**

**erosten ditut**

**baserriko produktuak**

**zuk?**

**OIZ EGIN**  
Tlf. 946 203 611 **on egin**

**Lea Artibai eta Durangaldeko  
produktuak zure etxera KLIK batean!**

**DOAN**  
bidaltze gastuak  
abenduaren  
31 arte

**www.oizegin.com**



# Sarrionandiaren saiakera saritua gaztelaniaz kaleratu dute

Javier Rodríguez Hidalgo arduratu da iurretarraren lana gaztelaniara itzultzeaz

**J**oseba Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean?* liburua gaztelaniaz argitaratu du Pamiela argitaletxeak. Iurretarraren saiakera Javier Rodríguez Hidalgo itzuli du, eta *¿Somos como moros entre la niebla?* izena ipini diote. Iaz Euskadi saria eman zioten euskarazko saiakeraren atalean, polemikaren ondorioz kendu egingo ziotela zirudien arren. Jaurlaritzak, justiziarekin egoera erregulatu arte saria erretentzeko asmoa agertu zuen, eta epaitegietatik bertatik heldu zen bere kontrako auzirik ez dagoela esaten zuen txostena.

## Epaileak, defendatzaile

Martitzen honetan aurkeztu dute liburu berria, eta Euskadi sarietako epaile bik parte hartu dute bertan: Ainhoa Larrañagak eta Josu Bijuescak. Azken honek esan du, hasieratik nabari zela Sarrionandiaren saiakerak gainerakoak aurreratzen zituela: "Alde batetik

orrialde kopuruak erakusten zuen anbizioagatik; eta bestetik, saiakeraren lorpenek anbizio horren mailan egotea erakutsi zutelako".

Larrañagak garrantzia eman dio liburua gaztelaniaz kaleratzeari: "Modu honetan, komunitate horrek, gure komunitate txi-

Larrañagak garrantzia eman dio liburua gaztelaniaz kaleratzeari

Gaztelaniazko bertsioak ia 300 orrialde gehiago dauzka



kiaren zati handi batek pentsatzen duena zein bere errealitatea eza-gutzeko tresna bat edukiko du".

Saiakera mardula da Sarrionandiarena, eta gaztelaniazkoak jatorrizkoak baino ia 300 orrialde gehiago dauzka. Historia, kronika eta hausnarketa batzen ditu lan berean; hori bai, literaturaren orrazitik pasata. Pedro Hilarion Sarrionandia gramatikagile eta fraile garaitarrak Arrifera egindako bidai hartzen du abiapuntu. Hark amazigeraren gainean egindako azterketaren berri ematen du,

kolonialismoan sakontzen du eta, azkenik, gaur egunerainoko ildo bat jorratzen du, Euskal Herriaz, politikaz eta jendarteaz hausnartzen amaitzeko.

Historia, kronika eta hausnarketa batzen ditu lan berean



## Zu zara **>** anboto !



### Zure egutegia hemen dago!

### Azokan eta ohiko lekuetan salgai.

#### DURANGO

- Arkarazo
- Alpino taberna
- Pol-pol
- Herriko taberna
- Antzokia
- Hitz liburudenda
- Urrike liburudenda

#### IURRETA

- Mila janari denda
- Urien liburudenda
- Iurreta kopistegia

#### GARAI

- Herriko taberna

#### ABADIÑO

- Estankoa
- Zure denda
- Petite
- Larrano

#### ATXONDO

- Mari okindegia

#### ELORRIO

- Tximeleta
- Ilargi

#### BERRIZ

- Fonda
- Ganeketxe
- Pedro Juan

#### ZALDIBAR

- Imendia
- Baratza

#### OTXANDIO

- Danoena taberna

#### MAÑARIA

- Herriko taberna

#### IZURTZA

- Azkonizaga
- Herriko taberna

#### MALLABIA

- Okindegia
- Herrikoa

**2€**





# Entzun, ikusi, irakurri, eta batez ere, kontatu eta hausnartzeko ipuinak

Kulturartekotasuna, parekidetasuna, euskara... Urtxintxa Eskolaren 'Titiriteroen ipuinak' bildumak balio ugari egiten die keinu. Horretarako, letrak, ilustrazioak, brailea eta zeinu hizkuntza baliatu dituzte. Sortzaileen artean, Durangaldeko hiru gazte daude

**B**asoko animaliek ile barik dagoen lehoiari ile-orde bat egitea erabaki dute, ikasle fina ez, baina ipuinak izugarri atsegin ditu Peruk, lau gaztetxok munduan barrena pistak hartuko dituzte euskara Euskal Herrian zabalteko... Istorioetan elkartasuna eta kulturartekotasuna lako balioei tira eginda, zortzi ipuinez osatutako *Titiriteroen Ipuinak* bilduma kaleratu du Urtxintxa Eskolak.

Ipuinak zortzi titiriteroren irudimenetik sortu dira, eta ohiko hizki eta marrazkiez gainera, CD eta DVD bana dakartza liburuak. Zeinu hizkuntza, brailea, eta soinu grabazioak dira ipuinon osagarri.

Urtxintxaren balioak egitasmo batean batu gura izan dituzte

“Helduok ipuinen edukiak aztertu eta bitartekari izan behar dugu”

Titiriteroak honako hauek izan dira: Miren Amuriza, Jasone Osoro, Mireia Delgado, Josu Martinez, Juankar Lopez-Mugartza, Uxue Alberdi, Gotzon Barandiaran eta Pako Aristi. Ilustrazioak Nagore Txintxurreta iurretarraren esku egon dira. Izen horiek, baina, liburuko parte-hartzaileen zerrendako zati txiki bat baino ez dira. Mireia Delgado ipuin kontalari durangarraren berbetan, “komunitate anitzari bideratuta dagoenez, horrek lantalde handia eskatzen du”.

**“Ipuinek ideologia dute”**  
Urtxintxa Eskolak bere jardunean lantzen dituen balioak batu gura

izan dituzte ipuin bilduman. Mireia Delgadok nabarmendu duenez, umeentzako baino, helduentzako liburu bat da: “Bitartekaritza lana da honen funtsa. Helduek irakurri behar dituzte ipuinak umeentzat. Ikasi egin behar dituzte ipuinak, eta bere egin. Istorio bakoitzak esangura bat dauka bakoitzarentzat, eta hori da transmititzen duzuna”.

Ipuinetan prebentzio lana egin behar da Delgadoren ustez: “Askotan irakurri ere ez ditugu egiten oparitzen ditugun ipuinak”. Ipuinek transmititzen dituzten balioak aztertzeke premia nabarmendu du: “Zintzoena da esatea ipuin bat idazten duenak ideolo-

gia bat transmititzen duela, kontzienteki edo inkontzienteki. Eta ez daude ipuin onak edo txarrak, ipuinetan dagoena aztertu behar da, eta helduok bitartekari lan hori txukun egin behar dugu”.

**Irudietan ere hausnarketa**  
Nagore Txintxurreta iurretarra izan da liburuko ilustrazioen arduraduna. Testurekin asko jokatu du eta asko zaindu du, esaterako, parekidetasun arloa: “Estereotipoetan ez jausten ahalegindu naiz. Lagun batek ikusi zuen Miren Amurizaren ipuineko protagonista, Xane, eta neska edo mutila ote zen galdetu zidan. Ondo dago hori hain argi ez egotea”.

## Printzesa gabeko gazteluak eta aitonaren txapela magikoa

Bildumako ipuin bana idatzi dute Mireia Delgadok eta Miren Amurizak

Miren Amuriza bertsolari berriztarrak *Aitona Ferminen txapela* izeneko ipuina idatzi du bildumarako. Hiru pertsonaia daude ipuinean: aitona, Xane umea, eta aitona zaintzen duen Rosa boliviarrak. “Hiru pertsonak guztiz desberdinak izanda ere, elkarri zergauza positibo eman ahal dizkieten kontatu nahi nuen”. Amurizak azaldu duenez, “ilusio handiaz” hartu zuen parte hartzeke gonbita: “Oso berezia izan da nik idatzitakotik Nagorek egin dako irudiak ikustea, eta zeinu hizkuntzan ipuina kontatzen ikustea ere bai”.

Mireia Delgado durangarra ohituago dago ipuinak kontatzen idazten baino, eta aitortu du: “idatzi nuenetik orain

kontatzen dudanera, hamaika bertsio egongo dira”. *Urrutiko erreinu batean* deitzen da bere ipuina, eta gaztelu berezi bateko biztanleen gainekoa da: Ez dago printzesarik, ez erregerik. Herriko jendea bizi da, eta lantaldean antolatzen dira gauzak egiteko, ikusezinak diren gauza batzuk, jana egitea, adibidez, denen lana da. Arerio batzuek gazteluko jendea bahitzen dute, eta sekretuen jolasarekin komunikatzen dira gazteluko lagunekin.

**Rol ikusezinak**  
Ipuinetan estereotipoetatik urrundu eta normalean lantzen ez diren rolbatzuk lantzeko premia ikusten dute Urtxintxa Esko-

lan, “ikusezinak direlako”. Mireia Delgadoren berbetan, izekoren papera, esaterako, ez da agertzen. “Familia ulertzeko modua oso mugatua da. Gure historian familia zer izan den pentsatu behar dugu: sare handi bat. Zergatik ez sartu pertsona horiek guztiak? Nork aukera dezake guraso izatea, gaur egun, sare hori gabe?”.

Emakumeek ipuinetan duten rolei buruz ere berba egin du: “Ipuinetan agertzen diren emakumeak beti dira norbaiten zer edo zer. Eta protagonistak badira, ikus dezagun zer egiten duten istorioan. Ez bakarrik nork salbatzen duen nor. Nor da aktiboena? Nork entzuten du? Nork dauka segurtasun-eza?”





“Gauran ez gara jolasean ibiltzen zure segurtasunarekin, horregatik gure ibilgailuei azterketa guzti-guztiak egiten dizkiegu.

Eta esandakoa betetzen ez badut, neuk zainduko ditut zure seme-alabak nahi duzun larunbat guztietan.”

*Andonik esana*

Andoni Baños,  
GAURSAko bigarren  
eskuko ibilgailuen  
arduraduna



**RENAULT SCÉNIC DYNAMIQUE**  
1.5 dCi 110ZP  
2011 Urtea

**14.800€\***

**RENAULT  
OCASIÓN**

\*Prezioan sartuta dago Renauitekin gutxienez 4.000 € finantzatzeagatik egindako 700 €-ko deskontua. Finantziarioak. Baliagarria partikularrek egindako erosketetarako. Prezioa finantziatorik gabe 15.500 €. Eskaintzak 2012/12/31ra arte iraungo du, edo izakinak amaitu arte. Irudiko modeloa Scénic Dynamique da.

Renault gomendatu **elf**



**GAURSA** ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VIA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBO [www.gaursaautoak.com](http://www.gaursaautoak.com)  
**BILBO BERRI** JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU [www.bilboberri.com](http://www.bilboberri.com)

# ESKUALDEKO



**Zazpi ebidentzia birjaiotzarako**  
Xabier Amuriza  
*Argitaletxea:*  
Lanku

Euskararen inguruko hausnarketa eta istorioekin liburu berria aurkeztu du aurtentzen Xabier Amurizak. Baina, ildo atzetik dator, aurreko liburuen segidan, berak azaldu duenez: *“Euskara batua-ren bigarren jaiotza-ri jarraipena emanez, bidezko eta beharrezko iruditu zait bertsio zentratuago bat ematea, gai txikiago eta eztabaidagarriago guztiak ezabatu eta arazo nagusietara bakarrik mugatuz. Azken batean, gai horietan-txe baitakust euskararen norabidearen*

gako erabakiorra. Arazo nagusiok ‘ebidentzia’ moduan aurkezten ditut, hala-koxeak direla uste dudalako: ebidentziak. Ebidentzien aurrean, jarrerabakarra dago: onarpena ala ezezpene. Har ala utz. Bitarteko eztabaidak ez du onura handirik.”

Euskarak, tresna bezala, gaitasun osoa eta normala eduki behar duela esan du Amurizak: “Esaldi mota guztiak, labur zein luze, errazak zein konplexuak, nahiaren arabera josteko baliabideak behar ditugu. Aditzari buruz, ebidentea da erraztea, laburtzea eta sinpletzea komeni dela”.



**Gerra Zibila Durangaldean 1936-1937**  
Jon Irazabal  
*Argitaletxea:* Gerediaga

Jon Irazabal historialari iurretarra 1977an hasi zen Gerediaga Elkartean lanean. Ondoren, 1984tik aurrera, Durangoko bonbardaketa eta Gerra Zibila ikertzeari ekin zion buru-belarri. Urteetan egindako azterketalan horren emaitza oparoa da: erakusketak, artikulak, hitzaldiak... Horrez gainera, liburu aipagarri bi ere argitaratu ditu: *1937 Martxoak 31 Durango* (2001) eta *Otxandio Gerra Zibilean (1936/1937)* (2003).

Martxoan aurkeztutako liburu berri horretan, Durangaldeko historiaren zati garrantzitsu bat jasotzen du Irazabalek 260 orritan. Testuari material grafiko berria ere gehitu dio iurretarrak.

Aurtentzen, 75 urte bete dira 1937an Durangoko uriak bonbardaketa jasan zuenetik, eta testuinguru horretan argitaratutako liburu da *Gerra Zibila Durangaldean 1936-1937*. Gainera, liburu hori Pablo Garitaonandiak zuzendutako Durangoko bonbardaketaren dokumentalarekin batera erosi ahal izango da.



**Sanblasak begietan**  
Lorea Madina eta Txelu Angoitia  
*Argitaletxea:*  
Abadiñoko Udala

*Sanblasak begietan* izenagaz Gerediaga Elkartek Abadiñoko azokari buruzko liburu berria egin du, udalaren enkarguz. Argazki bidez eta beren beregi libururako egin den ikerketaren bidez, urteetan San Blas azokak izan duen bilakaera erakusteko helburua izan du liburua. Lorea Madina kazetaria eta Txelu Angoitia argazkilaria izan dira lan honen egile edo koordinatzaileak.

Zati nabarmen bi ditu liburua. Batetik, argazkiak: 1915. urtetik 2011ra

arteko San Blasak iruditan erakusten dira. Bestetik, San Blas azoka eta jaiak izan duen bilakaerari buruzko ikerketa jaso da.

Liburuan, 40 argazkilariren 125 argazki inguru ikus daitezke. Argazkilarien artean denetarik dago: profesionalak, izendunak edota azken urteetan udalak antolatutako dituen lehia-ketetan parte hartutakoak. Argazkien bitartez San Blas azokaren bizitza irudikatuta daiteke. Horien lagungarri, zortzi abadiñarrek San Blas azokari eta inguruko jaiari buruz dauzkaten akordua idatzi dituzte.



**Beste liburu batzuk**  
Victor Arrizabalaga  
*Argitaletxea:* Bizkaiko Foru Aldundia

Victor Arrizabalaga artista mañariarrak erakusketa bat zabaldu du Bilboko Foru Liburutegian. Bertan, 25 eskultura eta 12 collage ipini ditu erakusgai, baina ekimenari gehigarri berezi bat eman dio: hainbat idazleren testuak lagungarri ditu. Unai Iturriaga, Joseba Sarrionandia, Leire Bilbao, Bernardo Atxaga, Harkaitz Cano, Miren Agur Meabe, Juan Carlos Mestre, Kepa Murua, Kirmen Uribe eta Mikel Varasen testuak ere ikusgai daude Bilboko erakusketan.

Poemak, ipuinak edo hausnarketak dira; gehienak argitaratu gabeak, eta erakusketako obrak izan dituzte erreferentziatzat. Alderantziz ere badago erreferentzia; hau da, Arrizabalagak ere aurretik argitaratutako testu batzuk erabili ditu bere artelanak sortzeko.

Orain, bigarren pauso batean, testu horiek liburuan argitaratu ditu Bizkaiko Foru Aldundiak. Bestalde, erakusketa abenduaren 29ra arte egongo da zabalik, astelehenetik barikura goiz eta arratsalde, eta zapatuetan goizez. Bisi-ta gidatuak ere egin ahal dira zita aurretik eskatuz gero, arduradunek azaldu dutenez.



**Ilargia esnatu da**  
Joxan Ormazabal,  
Iraia Okina  
*Argitaletxea:*  
Elkar

Liburu honen editoreek diotenez, Joxan Ormazabalek galdera hunkigarriak egiteko ohitura zuen: “Bihotza ukitzen duten horietakoak, baita galdera zailak ere tarteka, bihotza uzkurteraino estutzen duten horietakoak. Galdera zirraragarri bat da istorio honen abiapuntua. Hitz leungarrien bila heldu zion bideari narratzaileak. Erantzunaren bila zebilela, Iraia Okinarekin egin zuen topo. Haren ilustrazioek eman

diote ipuinari idazlea bilatzen ari zen poesia eta kolorea. Bizitzaren eta heriotzaren misterioari poesiaz eta sentimenduz betetako erantzuna eman diote”.

Iraia Okina ilustratzaile durangarrak hainbat liburutan parte hartu du, Peru Magdalena eta Josu Unzueta gaz elkarlanean, esaterako. Ormazabalegarene osatu zuen *Zirkua amets*, 2009an.

Ormazabalen heriotzaren ondorengo lana da hau. Idazlea 2010eko maiatzean hil zen. Euskarazko haur literaturako idazle garrantzitsuenetakoa izan zen.



**Izoko Eli eta biok**  
Xabier Olosa  
*Argitaletxea:*  
Ibaizabal

Xabier Olosa otxandiarraren liburu berria kaleratu du Ibaizabal argitaletxeak. Zortzi urtetik aurrerako umeei zuzendutako ipuina da. Horrela dio sinopsiak: “Izoko Eli Aneren izekorik kuttunena da, maitagarria, bromazalea eta bidaiazale porrokatua. Bidaia horietako batean, Obaba-Ibibi-Bobo buruzagi massaiak zuhaixka-hazi misteriotsu batzuk oparitu zizkion izoko Eliri. Herri-rua bueltan, izoko Elik Aneri utzi zizkion zaintzeko, berak beste bidaia bat egin

behar baitzuen. Eta hara non, behin batean, gauza miresgarria gertatu zen...”. 44 orrialde dauzka liburua, eta Ima Mendiola ilustratu du.

Xabier Olosa hainbat libururen egilea da. Helduentzako poesia landu izan du, batez ere, bere ibilbidean, baina haurrentzako ere ugari idatzi du: olerkiak, ipuinak, igarkizunak eta bestelakoak. Esate baterako, *Pupuan* trapezular liburuagaz, Haur eta Gazte Literaturako liburuaren onenaren Euskadi saria jaso zuen 2005ean.

*Gauaren hegalean* izan zen otxandiarraren lehenengo lana, 1996an kale-ratutako poesia liburu, hain zuzen ere.

# ARGITALPENAK >



## La alternativa Garat Iñigo Bolinaga Argitaletxea: Txertoa

Iñigo Bolinaga historialari elorriarrak proposamen berria dakar aurtengo azokarako: *La alternativa Garat: el proyecto napoleónico de crear un estado vasco*. Bolinagak dio, euskal estatu bat sortzearen ideia Sabino Aranaren Euzkadi baino lehenagokoa dela. Ehun urte lehenago, Joseph Garat lapurtarrak Napoleoni proposamen hori egin zio- la azaltzen du bere liburuan. Frantzia Berria izendatuko litzateke estatua, eta Bidasoa ibaiaren alde bietako herrial-

deak batuko litzuzke. Antza denez, Garaten proiektu hau kuriositate legez hartua izan da urteetan.

Garaten egitasmoak sasoiko mugen arabera estatu bat sortzen zuen. Napoleonek, estatuak sortu zein desegin egiten zituen inperioaren interesen arabera, eta baliteke Garaten ideia ez izatea hain burubakoa.

Bolinagak hainbat liburu plazaratu ditu dagoeneko. Esaterako, Nafarroako konkistari buruz idatzi zuen iaz *El Testamento*. Horrez gainera, era askotako ideologiak aztertzen ere saiatu izan da.



## Astola 6 Txelu Angoitia Argitaletxea: Gerediaga

Gerediaga elkarteak urtero kaleratzen duen Astola aldizkaria seigarren alera ailegatu da dagoeneko. Txelu Angoitia- ren zuzendaritzapean, hainbat kazetarik, idazle eta adituk parte hartu dute aldizkarian. Ikerketa eta historia ditu aldizkariak oinarri.

Aurtengo edizioan, Astolak hamai- ka gai dakartza: Durangon automobilen fabrika bat eraikitzeke lehen pausoak (Juan A. Hernandez), Pedro Hilarión Sarrionandia gramatikagileak

Garaitik Marokora egindako bidaiak eta itzulera (Mohamed Tah Tah), II. Errepublikara garaitik mugimendu anarkista (J. A. Orobio-Urrutia), Durangaldearen eskualde izakerari buruzko azterketa (Nerea Mujika), baserrien urrezko aroa (Alberto Santana), Durangoko lurak Bizkaiko jaunaren esku geratu zirenekoa (Iñaki García Camino), Zaldibarko Eitzaga auzoa (Gaizka Zabarte), hilerri portikodunak (J. A. Barrio Loza), Elorrioko plaza (Jose Luis Arruabarrena) eta Napoleonen sasoiaren gertatutako Zornotzako bataila (Erredakzio taldea).



## Gartxot Edorta Barruetabeña, Asisko Urmeneta, Juanjo Elordi Argitaletxea: Elkar

Iaz aurkeztu zuten zinemetan *Gartxot: Konkista aitzineko konkista* filma, eta orain bideo formatuan zabalduko du Elkarrek. Lau urteko lana behar izan dute Gartxot aurrera ateratzeko. Helburua, ausardiaz beteriko proiektu bat gauzatea: pertsonaien diseinu berritzailea, erromantizismoko paisaia ikaragarriak, filmetan entzun ez den euskara mota bat erabiltzea, burura baino gehiago bihotzera iritsi nahi duen gidoia... Hain zuzen ere, gidoigintzan ibili da Edorta

Barruetabeña durangarra. Gainera, liburua ere argitaratuta daukate, filmerako erabilitako dokumentazio eta testuak aprobexatuta. Bestalde, pelikulan, Benito Lertxundiren musika dago entzungai.

Aurrekariak baditu filmak. Arturo Campiónek 1917an idatzi zuen *Gartxot, Itzaltzuko bardoa*. Horretarako, Zaraitzuko kondaira ilun eta nahasi bat baliatu zuen, baina Nafarroako historian funtsezkoa den leku eta garai batean kokatuko zuen, intentzio osoz: XII. mendeko Orreagan.



## Euskal estatuari bidea zabaltzen Hainbaten artean. Mario Zubiaga, Andoni Olariaga Argitaletxea: Ipar Hegoa fundazioa

LAB sindikatuaren barruko Ipar Hegoa fundazioak euskal estatuari buruzko teoria bilduma kaleratu du. Hainbat irakasle eta pentsalariren ekarpena eduki dute, eta horien artean dira Mario Zubiaga durangarra eta Andoni Olariaga berritzailea. *Herrigintza eta erakundeak* liburuan parte hartu dute biek.

Arduradunek bildumaren aurkezpena eta kokapena egin dute sinopsi honetan: "Azterlan honetan jasotako ekarpen teorikoak, interesgarri bezain

baliagarriak izango dira Euskal Estatuaren aldarrikapena edukiz hornitzeko, eta lagungarriak, halaber, horrelako apustu bat bideratzeko beharrezkoa den oinarri material eta ideologikoa lantzeko. Liburu-bilduma honetan agerian geratzen da Estatu dela alternatibarik onena Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun pertsona guztiontzat, eta Euskal Herriak badituela oinarritzko potentzialtasunak, gaur eta orain, europar estatuaren multzoan estatu berri bat eraikitzeko".



## Bizkaiko Txakolina. Bidaia Mikel Garaizabal Argitaletxea: BFA

Mikel Garaizabal enologo eta sommelier elorriarrak idatzitako liburuan, txakolinera hurreratzeko modu berri bat planteatzen da. Gida baten funtzioa betetzen du, honako faktore hauek konstante hartuta: lanketa-prozesuak, upategiak, lantzen den eskualdeak, eta zerbitzatzen den jatetxe eta hotelak. Era berean, Bizkaiko kokalekurik nabarmenenak ere jasotzen ditu, arduradunek adierazi dutenez. Bost hizkuntza-

tan argitaratutako liburu hau 'cultural traveller' izenekoari zuzentzen zaio; aisialdi pasibotik aldentzen den turismo baten bila, ikasteko eta esperimentatzeko gogoz, eta enoturismoak erakarrira datorren horri.

Mikel Garaizabalek, *Euskal Herriko Ardoak* liburuagaz, ardoei buruzko munduko liburu didaktikorik onenaren Gourmand 2003 saria irabazi zuen. Sari hori, gastronomiari buruzko liburu Oscar sariaren parekotasun jotzen da, liburuaren sustatzaileek azaldu dutenez. Gainera, beste liburu bi ere argitaratuta ditu: *Mahatsaren orpotik dator* eta *Ardobidez*.



## Gaua balkoian Leire Bilbao Argitaletxea: Mezulari

Leire Bilbao durangarrak -Ondarroan jaioa da, berez- umeentzako liburu bat dakar Mezulari argitaletxearen eskutik: *Gaua balkoian*. Ez da Bilbaok haur literaturan egiten duen lehenengo proiektua; aurretik beste bederati testu ere badauzka idatzita. 2006an ekin zion umeentzat idazteko zereginari. Iaz, esate baterako, *Oihana hirian* liburuak aurkeztu zuen, kasu horretan Elkar argitaletxeagaz.

Honako hau kontatzen du aurtengo kaleratu duen liburuaren laburpen edo aurrerapenak: "Irati amonaren etxera doa gaua pasatzera. Afal ostean amona lo seko geratzen da eta neskatoak ez daki zer egin. Balkoira ateratzen da Xixtrin amonaren katuarekin batera. Bat-batean, klas! balkoiko atea itxi egiten da..."

Leire Bilbao ezagunago egin da, seguruenik, poesian egindako lanengatik. Eta hori liburu gutxiago argitaratu arren. Bi osatu ditu momentuz: 2006an *Ezkatak* idatzi zuen, eta iaz *Scanner* ekarri zuen Durangoko Azokara.

# Ahotsenea ordu gehiagoz egongo da zabalik

Aurtengo kultur sorkuntzari lekua emateko zuzeneko 42 emanaldi eta 46 aurkezpen-solasaldi batuko dira bertan. Bost urtean indartu egin da Ahotsenea

Landako Gune barruko azoka 20:00etan zarratuko bada ere, aurtengoa, Ahotsenean 22:00ak arte egongo dira kontzertu eta aurkezpen-solasaldiak. Gotzon Barandiaran Ahotseneako arduradunak azaldu duenez, azokak egun gutxiago izatera, "sortzaileak euren lanak aurkezteko leku barik gelditu ez daitezten" handitu dute ordutegia.

Azken egunean, domekan, 20:00etan itxiko ditu ateak, baina besteetan, hamaika orduz

"Askok esan digute ez luketela irudikatuko Azoka Ahotsenea barik"

egongo da zabalik Ahotsenea. Gainera, zarratu eta ordu erdira Platerueneako kontzertuak hasiko dira. Gura duenak, beraz, batetik bestera ibiltzeko aukera edukiko du.

Aurtengoa, azoka osatzen duten gune guztien koordinazioari esker, egitarauak osagarriak izango dira. Barandiaranek kontatu duenez, elkarlanik ez balitz egongo, sortzaileek leku batean baino gehiagotan eskatuko lukete tokia. Behin lanak koordinatuta, esaterako, Plateruenean zuzenean jotzen duten taldeek ez dute joko Ahotsenean.

"Bere kabuz hazi da"

Duela bost urte lehen aldiz zabaldu zutenetik Ahotseneak denbora gutxian "sekulako pausoak" egin dituela baloratu du Gotzon Barandiaranek. Batez ere sortzaileei eta kulturazaleei esker gertatu



da hori, bere ustez: "Antolatzaileok ez dugu sekulako ahaleginik egin behar izan, komunikatiboki, esaterako. Bere kabuz hazi da, bereberez bete izan da gunea urtero".

Ordu erditik ordu erdirako saioetan, karpa bete egin da Aho-

Plateruenean jotzen dutenek ez dute joko Ahotsenean

tsenea zabaldu zutenetik. Hori ikusita, euskaraz idazten eta musika sortzen dabilzanek plaza horren beharra zutela ondorioztatu du Barandiaranek: "Askok esan digute ez luketela irudikatuko Azoka Ahotsenea barik".

# "Kulturgintzan ardura dutenek aintzat hartzeko zenbakiak dira"

Egoera ekonomiko txarrean egonda ere, asko ekoizten dela nabarmendu du Ahotseneako Gotzon Barandiaranek: "Sorkuntza ez dago krisian"

Sortu, sortzen da. Ahotsenean 88 proiektu aurkeztea oso ondo baloratu du bertako kide Gotzon Barandiaranek: "Askok sortzen gabiltza egoera ekonomiko kaskarrean; datu hauek berresten dute sorkuntza ez dagoela krisian". Zabalkundeak arduratzen du idazlea: "Euskaldunok eta kulturgintzan ardura daukaten askok oso aintzat hartu beharreko zenbakiak dira. Gogoeta egin behar dugu, urte osoan zehar ere jendea jakitun egoteko zer sortzen dabilen".

"Gure lanak ikusgarri egin eta erabaki organoetan eragin gura dugu"

Ezagutu bako musika taldeekin harritzeko, idazleekin hausnarketa interesgarriak entzuteko... Hartu-emanerako lekua izaten da Ahotsenea. Hortik abiatuta, urte osoan hartu-eman hori zelan landu hausnartzen dabilta azken urteotan sortzaileak.

Gogoeta hori bultzatzeko, uztailean Euskal Sortzaileen I. Topaketak antolatu zituen Ahotseneak, Azpeitian. Topaketetako

ardura nagusia kultura bultzatzeko indarrak batzea zen: "Euskarazko kultura ez da ezaguna Euskal Herrian, ikusgarri egin behar da, zabaldu egin behar da".

Egoeraren analisia egin eta indarrak batzeko premia ikusi

Indarrak batzeko topaketak egin dituzte sortzaileek

zuten, eta Barandiaranek azaldu duenez, sortzaileen elkargune bat sortzekotan daude, formula bila: "Komunikabideek Hekimen sortu duten bezala, guk ere ikusi dugu elkartu egin behar garela indargune bihurtzeko, gure lanak ikusgarri egiteko, eta eragiteko erabaki organoetan".

Sortzaileen kezak

Euskaraz sortutako kultura ezagutarazi eta baloratzeko bidean, hainbat pauso adostu zituzten Azpeitiko jardunaldietan: "Kultura ikusgarri egin behar da, eta horretarako, euskarazko komu-

nikabideek beharrezko baldintzak izan behar dituzte". Transmisioa ere gauza garrantzitsua dela ondorioztatu zuten: "Gako bat hezkuntza izango da, hezkuntza arautua eta ez arautua, modu guztiak".

Urte osoan euskal sortzaileek plaza premia dutela adierazi zuten uztaileko topaketetan: "Plazak behar ditugu gure lanak erakusteko, eta horretarako ere beharrezkoa izango da kulturaren inbertitzeko gordetako diru apurrak inbertitu ditzatela Euskal Herrian euskaraz sortutako kulturari".



# Ahotseneako egitaraua

## ABENDUAREN 6an

- 10:30 *'Paradisuak eta katuak'* – Bernardo Atxaga eta Jabier Muguruza, aurkezpen-solasaldia.
- 11:00 *'Katiuxka Gorriak'* – Josu Bergara, zuzeneko.
- 11:30 *'Euskal Herriko musika argazkilariak'* liburua, aurkezpen-solasaldia.
- 12:00 *'Ez gara inoiz hilko'* – Eraso, zuzeneko.
- 12:30 Taupaka diskak, aurkezpen-solasaldia.
- 13:00 *'Poemak pluralean'* liburua – Iñigo Roque eta Fernando Pessoa, aurkezpen-solasaldia.
- 13:30 *'Zuloak'* – Zuloak, zuzeneko.
- 14:00 *'Bagoaz, hamaika arrazoi ditugulako, independentziaren aldeko panfletoa'* liburua, aurkezpen-solasaldia.
- 14:30 *'Gazta zati bat'* – Gazta zati bat dokumentalaren soinu banda, zuzeneko.
- 15:00 *'Hormatik hormaraino'* – Eric Dicharry, aurkezpen-solasaldia.
- 15:30 *'Itsas argiak'* – Izaki Gardenak, zuzeneko.
- 16:00 Entzun! aldizkaria, aurkezpen-solasaldia.
- 16:30 *'Double dragon'* – Meido, zuzeneko.
- 17:00 *'Mozoloaren bakardadea' eta 'Basajaun eta Martin'* – Juan Luis Zabala, Begoña Durruty, Yolanda Arrieta eta Maite Caballero, aurkezpen-solasaldia.
- 17:30 *'Gaur ez'* – Gaur ez, zuzeneko.
- 18:00 *'19 kamera'* – Jon Arretxe, aurkezpen-solasaldia.
- 18:30 *'Fruitua'* – Estankona, zuzeneko.
- 19:00 *'Begira'* – Lucien Etxezaharreta, aurkezpen-solasaldia.
- 19:30 *'Hoax'* – TxN (txoriak negutegian), zuzeneko.
- 20:00 *'Euskal herritarren burujabetza. Euskal herritarren autogobernu auziaren bilakaeraz Foruen bidezko erakundetzetik Autonomia Estatutura (1793-1919)'* – Joseba Agirreazkunaga, aurkezpen-solasaldia.
- 20:30 *'Aste nagusi'* – Goienetxe anaiak, zuzeneko.
- 21:00 *'Roni'* – Roni, aurkezpen-solasaldia.
- 21:30 *'Iglu bat basamortuan'* – Lauroba, zuzeneko.

## ABENDUAREN 7an

- 10:30 *'Independentziaren paperak'* – Pako Aristi, aurkezpen-solasaldia.
- 11:00 *'1992-2012 All Stars'* – Gozategi, zuzeneko.
- 11:30 *'Errotik'* – Asier Lopez, aurkezpen-solasaldia.

- 12:00 *'Atlantida'* – Sei Urte, zuzeneko.
- 12:30 *'Udazkeneko lorea'* – Xabier Etxeberria, aurkezpen-solasaldia.
- 13:00 *'Alter ero'* – Bertol Arrieta, aurkezpen-solasaldia.
- 13:30 *'Erraiak'* – Xabi San Sebastian, zuzeneko.
- 14:00 Ataramiñe argitaletxea – aurkezpen-solasaldia.
- 14:30 *'Hil Aiari'* – Hil Aiari, zuzeneko.
- 15:00 *'Odolaren sua'* (Alberdania), aurkezpen-solasaldia.
- 15:30 *'Joseba B. Lenoir'* – Joseba B. Lenoir, zuzeneko.
- 16:00 *'Oroizirriak 2'* – Xabier Soubelet, aurkezpen-solasaldia.
- 16:30 *'Larregi'* – Larregi, zuzeneko.
- 17:00 *'Nire amaren autobiografia' eta 'Benito Vereno - Billy Budd marinela'*, aurkezpen-solasaldia.
- 17:30 *'Bide zuzenetik oker'* – Never Surrender, zuzeneko.
- 18:00 *'Igela'* liburua, aurkezpen-solasaldia.
- 18:30 *'Dale candela'* – Itziarren semeak, zuzeneko.
- 19:00 Esku hori liburua (Txalaparta), aurkezpen-solasaldia.
- 19:30 *'Herri oihua'* – Herri oihua, zuzeneko.
- 20:00 *'A ala B'* – Willis Drummond, zuzeneko.
- 21:00 *'Kafe Aleak'* liburua – Kafea eta galletak, aurkezpen-solasaldia.
- 21:30 *'Begiak lekuko'* – Mugaldekoak, zuzeneko.

## ABENDUAREN 8an


- 10:30 *'Kaleidoskopia eta ilargi horia'* – Joxemari Iturralde, aurkezpen-solasaldia.
- 11:00 *'Ez naiz ni'* – Karmele Jaio, aurkezpen-solasaldia.
- 11:30 *'Himalayajavakaputazidiburrinda' eta 'Begi Blue'* – Amaia Hennebutte Millard, aurkezpen-solasaldia.
- 12:00 *'Solte'* – Solte, zuzeneko.
- 12:30 Gibelurdinek kultur elkartea, aurkezpen-solasaldia.
- 13:00 *'Etxekalte'* – Harkaitz Zubiri, aurkezpen-solasaldia.
- 13:30 *'Gose IIIII'* – Gose, zuzeneko.
- 14:00 Ibaeta abesbatza, aurkezpen-solasaldia.
- 14:30 *'Udazkena'* – Seiren, zuzeneko.
- 15:00 *'ETAren estrategia armatuaren historiaz'* – Emilio Lopez Adan, aurkezpen-solasaldia.

- 15:30 *'Hirugarren azala'* – Anger, zuzeneko.
- 16:00 *'EDO!'* – (liburuak), aurkezpen-solasaldia.
- 16:30 *'Arcada Social'* – Arcada Social, zuzeneko.
- 17:00 *'Martutene'* – Ramon Saizarbitoria, aurkezpen-solasaldia.
- 17:30 *'Hego lautadaren ertzetik'* – Balerdi balerdi, zuzeneko.
- 18:00 *'Made in Galiza'* liburua, aurkezpen-solasaldia.
- 18:30 *'U.K.Bill'* – U.K. Bill, zuzeneko.
- 19:00 *'Sinplistik'* – Hedoi Etxarte, aurkezpen-solasaldia.
- 19:30 *'Faktore komunak'* – Enkore, zuzeneko.
- 20:00 *'Ilargia esnatu da'* – Joxean Ormazabal eta Iraia Okina, aurkezpen-solasaldia.
- 20:30 *'Bronze'* – Bronze, zuzeneko.
- 21:00 *'Makulu ken'* – Makulu ken, aurkezpen-solasaldia.
- 21:30 *'Ahots gabekoen ahotsa'* – Skakeitan, zuzeneko.

## ABENDUAREN 9an

- 10:30 *'Hura ez da lekua'* – Oier Guillan, aurkezpen-solasaldia.
- 11:00 *'Bad sound sistem'*, zuzeneko.
- 11:30 *'Chansons d'amour'* – Ainara Maia Urroz, aurkezpen-solasaldia.
- 12:00 *'Ero'* – Ero, zuzeneko.
- 12:30 *'Arrakada'* – Arrakada, aurkezpen-solasaldia.
- 13:00 *'Izan dira'* – Alain Concepcion, aurkezpen-solasaldia.
- 13:30 *'Adarrots'* – Adarrots, zuzeneko.
- 14:00 *'Gabon'* – Maite Idirin, aurkezpen-solasaldia.
- 14:30 *'On'* – On, zuzeneko.
- 15:00 *'Tripoli-Kabul'* – Karlos Zurutuza, aurkezpen-solasaldia.
- 15:30 *'Anai arrebak'* – Anai arrebak, zuzeneko.
- 16:00 *'ZZ Blues Band'* – ZZ Blues Band, aurkezpen-solasaldia.
- 16:30 *'Glaukoma Vol.1'* – Glaukoma, zuzeneko.
- 17:00 *'Zozoen elean'* – M.A. Elustondo, aurkezpen-solasaldia.
- 17:30 *'ETS'* – ETS, zuzeneko.
- 18:00 *'Inifife'* – Peio Jorajuria, aurkezpen-solasaldia.
- 18:30 *'Hutsa'* – Hutsa, zuzeneko.
- 19:00 *'Cantus Caterva'* – Hasier Oleaga, aurkezpen-solasaldia.
- 19:30 *'Baraia'* – Baraia, zuzeneko.

### Laguntzaileak:



**Zuzendaria:** Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:** Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna, Aitor López.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde, Ane Elordi.  
**Maketazioa:** Ainhoa Arizmendiarieta.  
**Testu zuzentzailea:** Goiatz Etxeita.  
**Argazkilariak:** Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

# Plateruena azokako gune bihurtu da

Musika kontzertuak, dantza emanaldiak, ikuskizunak, elkarrizketak eta mahai- inguruak hartuko ditu Plateruena kafe antzokiak azokako egunetan



Plateruena betidanik azokaren parte izan den arren, aurtengoan gune moduan aurkeztu dute egitarauan. Azokaren inguruan ekitaldiak antolatzen diharduten elkarte eta eragileekin Gerediagak sortu duen koordinazio mahaian ere jardun du aurten antzokiak. Beñat Gaztelu-Urrutia antzokiko kudeatzailearen berbatan, "Azokak ateak zabaldu dizkigu eta oso eskertuta gaude". Egitaraua osatzeko askatasuna izan dutela eta benetako elkarlana sortu dela gaineratu du antzokiko kudeatzaileak.

Azokako egunetan lana ete-rik barik egiten dute Plateruenean. Ikuskizunetan diharduten

Diskoak aurkeztera datozen taldeen kontzertuak mimo handiz prestatu dituzte

profesionalerik gainera, bisitarietabernan edaten eta jaten emateko talde sendoa prestatu dute: "Urte guztiko kultur gune euskalduna garen arren, azokara egokitzten gara egun hauetan".

Josep Lluís Carod Roviraren elkarrizketarekin zabalduko da azokako egunetan Plateruenean

izango den egitaraua. Abenduaren 6rako Info7 irratiak Plateruenean antolatu duen zuzeneko saioaren barruan, Independentzia Olatua izenburupean elkarrizketatuko du te ERC alderdiko presidentea ohia. Ondoren, Iñaki Soto (Gara), Iñaki Petxarroman (Berria) eta Arantzazu Zugaztiren arteko (Noticias) mahai-ingurua entzuteko aukera egongo da.

## Kontzertuak zuzenean

Disko berriak aurkeztera datozen taldeen kontzertuak mimo handiz prestatzen dabilta. Ekitaldi aukeratuak izaten ei dira, eta bereziki zaintzen dituzte. Diskoalabetik atera berri duten taldeek biran erabiliko duten formatua erakusteko aukera izango dute antzokiko oholtzan. Gatibu taldeak atzo eman zuen zuzeneko. Bizardunak eta Vendetta taldeak izango dira gaur, gaueko 22:30ean, antzokian.

Aiko taldearen erromeria bariku eguerdirako prestatu dute, haren jarraitzaile fidelentzat. Gauean berriz, Nire kerazuriaren palian dao ikuskizuna eskainiko dute. Txalapartariak, Las Fanis, Arkaitz Estiballes, Vembrulé, Amets Arzallus eta Bien Me Saberen artean antolatutako ikuskizuna izango da. Abenduaren 8an, Etchart ahizpak eta Betagarri igoko dira taula gainera, kaleratu berri dituzten diskoetako musika zuzenean aurkeztera.



Abenduak 9 • 19:00

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA



## PLATERUENAKO EGITARAUA

### Abenduaren 6an

ELKARRIZKETA ETA MAHAI INGURUA

13:00 *'Independentzia Olatua'*. Elkarrizketa: Josep Lluís Carod Rovirari. Mahai ingurua: Iñaki Soto, Iñaki Petxarroman eta Arantzazu Zugasti.

KONTZERTUA

22:30 *'Bizardunak'* eta *'Vendetta'*. (8-10 euro).



### Abenduaren 7an

13:30 *Aiko taldearekin erromeria*.

GAU IJITOA

22:30 *'Nire kera zurearen palian dago'*: Txalapartariak, Las Fanis, Arkaitz Estiballes, Vembrulé, Amets Arzallus, Bien Me Sabe. (8-10 euro)

### Abenduaren 8an

KONTZERTUA

13:30 *'Etchart ahizpak'*.

KONTZERTUA

22:30 *'Betagarri'*. (8-10 euro).



### Abenduaren 8an

KONTZERTUA

20:00 *'Kherau'*.



# ALMACENES ARRASATE



**TIEN 21**

Intxaurrondo, 12 behea  
Tel.: 94 681 34 85  
48200 DURANGO

Kataide Industriegunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon  
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13




**ROOMBA 620**  
349 € **iRobot**



1200 b/min  
6 kg  
A+ Sailkapen energetikoa  
**GARBIGAILUA 3TS865E**  
299 € **Balay**



1400 b/min  
7 kg  
A++ Sailkapen energetikoa  
**GARBIGAILUA WM14E470EE**  
420 € **SIEMENS**



1200 b/min  
8 kg  
A+++ Sailkapen energetikoa  
**GARBIGAILUA F-8212**  
430 € **FAGOR**



1200 b/min  
8 kg  
A+++ Sailkapen energetikoa  
**GARBIGAILUA WAQ24468EE**  
465 € **BOSCH**



8 kg kondentsazioa  
**LEHORGAILUA WTE86111EE**  
465 € **BOSCH**



8 kg kondentsazioa  
**LEHORGAILUA SF820CE**  
399 € **FAGOR**



**LABE PIROLITIKOIA 6H-760AX**  
450 €  
**INDUKZIOA IF-33BS**  
430 € **FAGOR**



**LABE PIROLITIKOIA HB74AS551E**  
499 €  
**INDUKZIOA EH651TK11**  
465 € **SIEMENS**



**LABE PIROLITIKOIA BP3313091M**  
475 €  
**INDUKZIOA HK633220XB**  
445 € **AEG**


**PREZIO BEREZIAK**

**BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZETARAKO**



Biltegiako prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistentzako prezio bereziak.  
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.





URTARRILA



ZEZEILA



MARTIA



APIRILA



MAIATZA



BAGILA



GARAGARRILA



ABUZTUA



IRAILA



URRIA



ZEMENDIA




ABENDUA

# Datorren urtean ere zuen alboan izango gara

5 €-tan salgai Durangaldeko liburudendetan eta Durangoko Azokan







## SeiUrte rockero, serio eta helduago bat 'Atlantida'-n

Baga Biga disketxeagaz kaleratu dute berriztarrek seigarren diskoa. Ahotsenean aurkeztuko dute bihar

**J**oan zen astean, Bilbon aurkeztu zuen SeiUrte Berrizko laukoteak taldearen seigarren diskoa: *Atlantida* du izena, eta musikariak berbetan, erronka berriak ekarri dizkie.

Aurreko bost diskoak bezala, pop doinuak oinarri hartuta egin dute *Atlantida*, baina rockera gehiago hurreratu dira seigarren honetan. Musikariak eurek azaldu dutenez, SeiUrteren ezagarrria den melodiaren indarra mantenduta, baina gitarrei protagonismo handiagoa emanda egin dute soinu 'rockeroago' horretarako bidea.

Aurrekoekin alderatuta, seigarren diskoa "serioagoa, helduagoa eta ilunagoa" dela ere azaldu dute taldekideek. Iokin Elortza taldeko abeslari eta gitarristak aurkezpenean azpimarratu zuten, baina, "beti egin ditugu diskoak seriotasunez". Beharbada *Atlantida* disko berri honek "seriotasun itxura handiagoa" ematen duela onartu zuten, dena den.

Ahotsenean aurkeztuko dute diskoa: abenduaren 7an, 12:00etan

Urtarrilean ekingo dio Berrizko laukoteak *Atlantida* zuzenean aurkezteko birari

Disko berria 2009an Baga Biga disketxeagaz kaleratu zutenaren "jarraipen hutsa" izaterik ez zuten gura SeiUrtekoek, eta bide berriak zabaltzea erronka moduan hartu dute: "Disko sakonago bat egitea" izan dute helburu. Luze eta gogor egin dute lan 1997an SeiUrte sortu zuten Iokin, Ekain eta Iñaki Elortza anaiek eta Julen Oarbeasko baxujoleak *Atlantida*-n.

Popa oinarri hartuta, baina rockera gehiago hurreratuz egin dute diskoa

"Disko sakonago bat egitea" izan dute helburu eta "luze eta gogor" egin dute lan

Hamaika kantako diskoa da *Atlantida*. Iokin Elortzak aurkezpenean azaldu zuenez, 20 kanta prestatu zituzten, eta horietako hamaika aukeratu disko berrirako. Diskoari izenburua ematen dion *Atlantida* kanta diskotik kanpo geratu zen galbahe horretan.

Urtarrilean ekingo dio laukoteak *Atlantida* zuzenean aurkezteko birari. Momentuz, urtarrilerako lotuta dauzkate Durangoko eta Ondarroako kafe antzokiatako kontzertuak. Aurretik, baina, Ahotsenean joko dute, abenduaren 7an, 12:00etan hasita.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN AMETSAK.

**"GIZARTEAREN GARAPENEAN LAGUNTZEKO IKERLARI IZAN NAHI NUEN ETA UNIBERTSITATEAK ATEAK IREKI DIZKIT."**

Alaitz Zabala, Biomaterialen ikerketa lerroko ikerlaria.



**PREST**



**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

**ATE IREKIAK**

**Goi Eskola Politeknikoa**

ARRASATE • **ABENDUAK 15** larunbata, 10:30

**Enpresagintza Fakultatea**

OÑATI • **ABENDUAK 13** osteguna, 18:00

BIDASOA • **ABENDUAK 15** larunbata, 11:00

**Gastronomia Zientzien Fakultatea-Basque Culinary Center**

DONOSTIA • **ABENDUAK 15** larunbata, 10:30

**Ate Irekiak ONLINE**

**ABENDUAK 18** asteartea, 18:30

<http://mukom.mondragon.edu/mutb>

ARETO NAGUSIAN

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

**902 110 436**

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



# JUAN BERISTAIN

Salmenta eta  
konponketa

## NEKAZAL TRESNAK

Berriozabalbeitia, 14

48230 Elorrio

Tel.-Faxa: 94 623 18 03

[juanberistain@telefonica.net](mailto:juanberistain@telefonica.net)



HONDA

STIHL®

SAME

PASQUALI

FERRARI

CARON



# Durangaldeko rock musika, Iheskide eta Rock Izar eskolaren eskutik

Iheskidek hirugarren diskoa dakar, eta Alice & The Blackfeet berpiztu egin da



**A**urten ez dira asko izango nobedadeak ekarriko dituzten Durangaldeko rockeroak. Baina, kuantitatiboki ez bada ere, kualitatiboki ekarpen berezia egingo dute. Iheskide elorriarrak eta Durangoko Rock Izar eskola izango dira tokiko rockaren bandera hartuko dutenak. Iheskidek maiatzean argita-

ratu zuen *...ta irabazi arte!* izeneko diskoa. *Arrano beltzaren hegaldiak* abestiaren bideoklipa ere publikatu zuten, eta segituan zabaldu zuten Euskal Herri osoan. Bertan, ekarpen bitxi bat ere egin dute, Laboaren *Martxa baten lehen notak* abestiaren bertsioa eginez. Azokan diskoa erosteko aukera edukiko dute oraindik alerik lortu



ez dutenek. Punk-rock bizia, melodiari garrantzia emanda, eta letra zuzen eta gordinekin. Maketaren ostean, hirugarren diskoa da aurtengo.

## Taldea berrantolatzen

Bestalde, Durangoko Rock Izar eskolahiru proiekturen emaitzak dakartza: Arrakada taldearen lehenengo diskoa, Alain Ramirezzen *Izan dira*, eta Alice & The Blackfeet taldearen birjaiotza. Bigarren etapa honetarako, Olga Ozhelska-

## Iheskidek maiatzean argitaratu zuen '...ta irabazi arte!' izeneko diskoa

ya abeslari errusiarrak gidatuko du taldea ahotsetik. Ozhelskayak eta Ibon Larrañaga gitarra-jotzaileak berrantolatu dute taldea. Rock klasiko, indiea, soula... Ez dira estilo bakarrean ibiltzekoak, adierazi dutenez. Hamabi abestiko lana da durangarrek aurkeztu dute: *The Uprise*.

Interneten badago ikusgai euren lan berriko lehenengo bideoklipa: *Station*. Besteak beste, Durangoko tren geltokian grabatuta dago. Hain zuzen ere, estazio, tren eta abandonuen istorio bat kontatzen du diskoak, taldekideek diotenez.

# Gozategiren bideoklipa Durangaldean grabatu du Bideografikek

Durangaldeko hainbat lagun egun batez aktore lanetan jarri ziren 'Nirekin'-en bideoklipa grabatzeko

1992-2012 *All Stars* izena jarri dio Gozategik kaleratu berri duen diskoari. Taldeak bere ibilbidean ezagun egin dituen 13 abesti aukeratu ditu diskorako. Lan horretako abesti baten bideoklipa grabatu du Durangoko Bideografik ekoiztetxeak. *Nirekin* abestiari irudia jartzeko Durangaldeko hainbat pertsonen laguntza eskatu zuten. Egund batez, aktore lanetan jarri ziren lagunak abestiaren esaldiak abesten dituzte kamera aurrean. Ikus-entzunezkoa Irudienean izango da ikusgai.

abestirako, Orion bizi den Tabaski Diop senegaldarrak hitz batzuk esan ditu wolofez. Disko berrirako Joseba Aparicio eta Iñigo Peronak jo dituzte haizezko tresnak. Oriotarrek urte bi daramatzate taldearekin zuzenean, baina lehenengo aldiz sartu dira estudioan. Perkusioak, Yuri Nogueira kubatarrek jo ditu -Miguel Bosé, David Bisbal... bezalako artistekin aritua-. Bateria David Gorospe zarauztarrak jo du, gitarra Imanol Goikoetxeak, baxua Iñigo Goikoetxeak eta soinu txikia Asier Gozategik.



## '1992-2012 All Stars' izena jarri dio Gozategik kaleratu berri duen diskoari

Abesti guztiak berriro grabatu dituzte eta Mikel Irazoki Miguel Boserren zuzendaria musikarekin jardun dute. Elkarrek Donostian duen estudioan grabatu zuten diskoa, Jean Phocas eta Victor Sanchez teknikariek, 2011ko azaroan. Hiru Grammy irabazi dituen Pepo Scherman musika ingeniariak eta Irazokik berak egin dituzte nahasketak, taldearekin elkarlanean. *Pakia beyau*

## Irudienean ikusgai

Lekeitioko 35. Zine eta Bideo Bileran dokumental eta erreportaje profesional onenaren saria jasota aurkeztuko du Bideografikek *Gure arbasoen ogibidea* ikus-entzunezkoa azokan. Film labur honetan, Ander Ugarte artisauak pilotaren eta euskal kulturaren artean sortzen den harremanaren inguruko ikuspuntu pertsonala azaltzen du. Ikus-entzunezkoa abenduaren 7an eman go dute, 10:30ean, Irudienean. Abenduaren 8an, berriz, Bideografikeren *Maddiren ametsa* film laburra eskainiko dute, 10:30ean. Azokako aurreko edizioetan Durangoko sortzaileek estreinatutako beste film luze bi ere ikusgai izango dira: *Psicobloc: Ur sakonetako bakardadea*, eta *Aizkora hotsak goi mendietan*.





# Hamar mende baino gehiago atzera egiteko aukera Argiñetan

Elorrioko Argiñetan bisita gidatuak antolatu dituzte Azoka egunetarako

**B**ertako nekropoliatik da ezaguna Elorrioko Argiñeta. Erdi Aroko hilobi eta hilarriek ikusgarri egiten dute, eta misterio puntua ematen diote Zenita auzoko guneari. Azken urteetan, gainera, indusketak egin dituzte, eta VII. eta XI. mendeen arteko aztarnak topatu dituzte. Bizilekua eta kanposantua zituen herririk bat zegoela ondorioztatu dute. Bisita gidatuan ikus daitezke abenduaren 6tik 9ra.

## Bizilekua

Ikerketa lanek orain arte ondorioztatu dute, herririk bat egon zen Argiñetan Goi Erdi Aroan, duela hamar mende baino gehiago.

VII. eta XI. mendeen arteko aztarnak topatu dituzte: bizilekua eta kanposantua

Arkeologia Museoko ikerlariak ibili dira beharrez, eta San Adrian ermitaren goiko aldean aurkitu dituzte aztarnak. Herri hartako etxeak material galkorrez zeuden erakita, eta horrek zaildu egiten du etxebizitzaren egituren azalpen argiak topatzea.

Antzinako etxe horien zutoinek eragindako zuloengatik eta lurteko zirrikitu eta labakiengandik jakin dute nondik norako herririk zen Argiñetako. Hainbat objektu ere aurkitu dituzte, eta laborategian aztertuko dituzte, ekainean indusketen bigarren fasea hasi aurretik. Adituen berbetan, Bizkaian eta Gipuzkoan ezagutzen diren bakarrenetakoak dira aztarnak.

## Kanposantua

Ermitaren behealdean antzinako kanposantu bat topatu dute ikerlariak. Berezia da, gainera, hilobiak harkaitzean zizelkatuta daudelako. Auzokideek euren hildakoak lurperatzeko erabili zituzten harrizko hilkutxen aztarnak ere badaude.

Momentu honetan aztarnategiko eremu bi horiek begi-bistan daude, baina zarratu egingo dituzte laster, aire zabalean oso kontserbazio txarra daukaten harriak direlako. Estali aurretik, baina, Elorrioko Udala bisita gidatuak antolatzen dabil, aurkitu denaren berri emateko.

## Bisita orduak

Argiñetako aztarnategiak ikusteko bisitak arratsaldeko 16:00etan hasiko dituzte; 7an eta 9an euskaraz, eta 6an eta 8an, gaztelaniaz. Argiñetan bertan ipini dute hitzordua antolatzaileek, eta azaldu dutenez, 50 minutu inguruko bisitak izango dira. Azalpenak jasotzeagatik ez da ordaindu behar, eta joan gura duenak ez dauka zertan lekua aurretiaz erreserbatu.

## Nekropoli ondoan aurkitutakoari tiraka

Jakin-mina aspaldikoa izan arren, 2010ean egin zituzten lehen indusketak Argiñetako lurretan

Argiñetan eta inguruetan topatutako aspaldiko hilobiak direla-eta, bertako historia erakargarria izan da hainbat historialari eta arkeologorentzat. Dena dela, EHUko ikerketa talde batek 2010ean egin zuen lehenengo zundaketa. Lan horren ondoren hasi da Argiñetako aztarnak berreskuratzeko egungo proiektua.

2010ean bertan, gizakien antzinako kokaleku baten aztarnak aurkitu zituzten baselizaren iparraldean: zutoin zuloak, mozketak harrietan eta egurrezko eraikuntza zaharren arrastoak. Ermitaren hegoaldean, VII. eta XI. mendeen arteko bost hilobi estalki eta harlauzazko hilobi bat aurkitu zituzten. Iñaki Garcia Camino arkeologoak zuzendu du geroztik lana. Besteak beste, Goi Erdi Aro-

ko herririkaren eraikuntza-historia zehaztea eta biztanleen demografia eta elikatzeko ohiturak aztertzea da helburua.

Elorrioko Udalak Aldundiagaz sinatu du bilduma ezagutzera emateko eta balioan jartzeko egitasmoa. Hiru ataletan garatuko dute proiektua osoa, eta 2015erako amaituta egotea espero dute.

## Herritarren ekarpenak

Lehen zundaketan ondoren, elorriarrek batzarrak egin zituzten Argiñetako proiektua zelan garatu gura luketen hausnartzeko. Ondorioetan, proiektua ahalik eta naturalen egitea aitatu zuten, ingurunea eta natura babestuz. Esaterako, bertan Interpretazio Zentrorik ez egiteko eskatu zuten; egitekoan, herrigunean agian.



DURANGO

ERROTARITXUENA

# Arriskurik gabeko aukera bat

*Denbora ziurtatzen ari da*

## Egiazta ezazu!



**%100 - raino finantzaketa**

- Baldintzarik onenetan
- Idatziz bermatua

SabadellGuipuzcoano



**2 log. 204.000€**-tik aurrera + BEZ

**3 log. 268.000€**-tik aurrera + BEZ



[www.sukia.com](http://www.sukia.com)  
[www.solvia.es](http://www.solvia.es)

 **sukia**  
Zure etxean zaude.  
Estás en tu casa.

946 46 20 41

# Sareko euskarazko lanak sarituta, komunitatea indartu nahi dute

Aurten ere, Internetegaz lotuta, deneriko ekitaldiak eratu dituzte Kabi@ gunean



moduko bat egitea da helburua". Ideia horretatik tiraka, era partehartzailean egitea otu zitzaion Rojas. "Sarean euskaraz dabilzan euskaldunek erabakitzea zeinek partehartuko duen hor eta zeinek ez". Geroztik, iaz kenduta, urtero-urtero antolatu da sari banaketa. "Hasieran jolas bat zen, baina jendearen partaidetzak eman dio aberastasun hori".

Lehenengo fasean hautagai-tzak proposatzen dituzte internautek. Bi baldintza bete behar dituzte: urtekoak eta euskaraz-

Rojas: "Lehiatzea baino, inbentario moduko bat egitea da helburua"

Sariekin batera, bozketan parte hartu dutenekin zozketa egingo dute

Internetek eta teknologia berriek aurten ere leku propioa edukiko dute Kabi@ gunean. Deneriko ekitaldiak eratu dituzte, eta asko jolasen bidez garatuko dira. Aurten nobedade bat Sei@2012 sari banaketa izango da. Interneten 2012an sortu diren euskarazko produktu onenak sarituko dituz-

Aurten sendotu egingo dute Azokan ekitaldia eginda

te abenduaren 7an. Ekimen hau 2007an ipini zuen martxan Joxe Rojas internautak, eta aurten sendotu egingo dute Azokan ekitaldia eginda. Interneteko euskarazko komunitatea indartzea izango da helburua.

Rojasek azaldu du interneteko blog askotan urteko webgune

onen rankingak eta egiten direla: "Eta pentsatu nuen, zergatik ez egin horrelako bat euskarazko webguneekin? Beti entzun izan dugu euskaldunak interneten gutxi baina aktiboak garela". Euskaraz esan bezainbeste gauza egiten direla baieztatu gura zuen Rojas. "Lehiatzea baino, inbentario

koak izatea. Baldintza horiek betetzen dituztenekin bozketak abiatzen da. Aurten, 28 proposamen egon dira hautagaien artean, eta sei onenak zeintzuk diren erabakitzea izango da bozketaren asmoa.

Sariekin batera, bozketan parte hartu dutenekin zozketa egingo dute, hilaren 7an, 18:30ean.

## EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN



Astero etxean DOAN jaso dezazun egiten dugu behar

**anboto**  
komunikabideak



2012ko harpidedun berrien artean ere EROSKI BIDAIKek emandako 6 asteburu-pasa zotz egingo ditugu, eta Anbotoko harpidedun guztien artean aste bateko egonaldia Kanariar irletan

HARPIDEDUN EGITEKO HIRU AUKERA DITUZU:

**1** anboto@anboto.org helbidera idatzi.

**2** 946816558 telefonora deitu.

**3** Kupoia bete eta bidali Anbotora.

ANBOTO ASTEKARIA - Bixente Kapanaga 9 - 48215 IURRETA



Izena ..... Abizenak ..... Telefonoa.....

E-posta ..... Helbidea..... Herria.....



Otra mecánica es posible

## Bestelako mekanika bat posible da



### Erraz, denbora eta dirua aurreztuz

Taller mekanikoa ulertzeko modu berri bat, ibilgailua zeuk konpondu ahal izan dezazun. Gidariak eta erabiltzaileek prezio onean euren ibilgailua konpontzeko gunea, zain egon gabe eta dirutzarik xahutu gabe, bakoitzak behar dituen ordeko piezak ekarri edo bertan eskuratu ditzake-eta.



### Zure eskura jarriko dugun tailer batean

Makina arloan azkeneko teknologia zure esku, eta RTVk behar duten bezero guztiei eskaintzen dien doako aholkularitza ere bai. Gainera, ordeko piezen denda ere badugu behar duzun guztia eskuratzeko.



### Aste osoan zehar (astelehenetik igandera)

Bezeroen beharren arabera egokituta, RTVk ordutegi malgua du, astelehenetik igandera 09:30etik 21:30era atatak zabaldua, bakoitzak aukeratu dezan bere ibilgailua zaintzeko ondoen datorkion unea.

Erreserbatu zure boxa  
Eman izena trebakuntza  
ikastaroetan!

azkar!

Olio eta iragazkia aldatzea

24€  
-tik  
hasita

Errekuntza-tokia eta haizearen  
iragazkia aldatzea

44€  
-tik  
hasita

info@reparatuvehiculo.com  
www.reparatuvehiculo.com

RTV Iurreta: Durango-Bilbo N-634 errepidea, 82 km - UEI-3 poligonoa, 5 zk. behealdea - 48215 Iurreta - Tel.: 94 681 79 14  
RTV Basauri - Bilbondo ZK - Artunduaga - Bastegi kalea 1A - 48970 Basauri - Tel.: 94 400 87 60  
RTV Barakaldo - Max Center ZK - Karega kalea, 35 3A - 48903 Barakaldo - Tel.: 94 490 47 28



Prezio hauek eskainiriko zerbitzu guztiak erabiltzeko 3 o. 15 min.-an erabiltzeko box bat alokatzeari lotuta daude, Gulf10w.40 olioia, Mann iragazkiak, eta RTV tresnak eta piezak erabiliz. Begiratu beste prezio batzuk.



Bestelako mekanika posible da

www.reparatuvehiculo.es

## PROMOZIOAK



OLIOA+OLIO FILTROA EROSIZ  
15 MINUTU DOAN BOXEAN

AURREKO+ATZEKO FRENOAK EROSIZ  
FRENO GARBITZAILEA DOAN

Konpondu zure autoa zuk zeuk  
BEZaren aurkako promozioekin

OLIOA+OLIO ETA ERREGAI FILTROA EROSIZ  
30 MINUTU DOAN BOXEAN

N-634 errep. Durango-Bilbao 82km.  
UEI-3 ind. 5 behea - 48215 Iurreta  
Tel./Fax: 94 681 79 14

# "Euskal sorkuntza ez dago krisian, ideia eta proiektu pilo daude"

Euskal Liburu eta Disko Azokako zuzendaria da lehenengoz Aiert Goenaga ondarroarra

**A**urten estreinako urtea du azokako zuzendari. Azken asteak mugimendu askoak izan dira. Dagoeneko azokaren makineria erraldoia martxan dago, eta Goenagak desio nagusi bat du: "Azokan batzen diren kate denak pozik geratzea. Desio hori betezen bada aurtengo Gabonak aurreratuta etorriko zaizkit".

**Lehenengo urtea duzu azokako zuzendari. Zelako esperientzia izan da orain arte?**

Oso esperientzia positiboa izan da. Azoka proiektu handi bat da, bai dakarren sinbolismoagatik, bai betetzen duen funtzioagatik zein hartzen duen dimentsioagatik. Bere inguruan mugitzen diren eragile kopurua handia da. Alde horretatik, asko ikasteko balio duen proiektua da, oso motibarrria bertan aritzeko.

**Aipatu dituzun arrazoi horiek guztiek karga handia ahal dira erantzukizunaren aldetik?**

Bai, baina proiektu honetan parte hartzea proposatu zidatenean, banekien non sartzen nengilenean; asko dira euren ahaleginak eta itxaropenak abenduko hitzordu honetara bideratzen dituztenak, eta badakigu ilusio hori guztia bideratzea gure gain dagoela eta era egoki batean antolatuta behar direla azpiegiturak, denen interesak modu egokian uztartuz.

**Zure zereginen artean, zein da gatxen egin zaizuna?**

Hain da proiektu handia, hain dakartza elementu asko, horren guztiaren argazki orokorra hasieratik baneratzeko gatxa da. Kezka hori izaten da. Bestetik, argazkia osatzen duten pieza guztiek duten interesen arteko oreka bat bilatu behar da. Alde guztiei erantzun egoki bat ematen saiatu behar gara. Horiek izan dira, behar bada, gure erronka nagusiak.

**Argazki orokor hori egiterakoan zer ikusi duzu?**

Alde horretatik ez dut zalantzarik, euskal kulturaren sorkuntza oso osasuntsu dago. Krisiak eragin dio, hori garbi dago. Azokan ere nobedade aldetik murrizketa egon da, baina ni ez nintzateke datu horrekin geratuko. Beste hainbat elementuren ondorioa da. Baina ideia bat bereziki azpimarratu nahi dut nik: euskal sorkuntza ez dago krisian. Sortzaileek ideia eta proiektu pila bat dituzte, eta hori igarri egiten da eragiten duten bizitasunean.

**Aurten, hainbat elkarte azokako koordinazio mahaian egon dira lehenengoz. Aberasgarria izan da?**

Oso aberasgarria izan da. Berez elkarlana beti egon da azokan. Baina denborakurrera egin ahal, eta azoka eraldatzen joan den heinean, elkarlan prozedura horiek aldatzen joan dira. Une honetako gure estrategiak koordinazio mahaian eratzeko eskatzen zuten. Diziplina berrietara jauzi bat eman dugu, eta horiek denak azokaren parte dira. Denok ari gara azokari begira lanean. Beraz, zer egokiagorik denok mahaibaten inguruan jarri eta ideak amankomunean ipintzea baino.

**Hainbat diziplinari eskainitako zazpi gune ditu azokak. Horrek bisitariak azokara erakartzeko amu berriak ere badira.**

Azken batean, azoka kate handi bat da, elkarri eragiten dioten askotariko guneen batura bat. Hori da helburua: euskal kultur sorkuntzaren inguruko hainbat profil batzea. Azokaren aurreko aldietan sortutako gune berriekin musika eta literaturatik jauzi bat eman dugu arte eszenikoetara, ikusentzunerako eta teknologia berrietara. Horrek guztiak etorkizunerako bidea ere erakusten du.

**Gune berrien artean Plateruena sartu duzue.**

Plateruena izakera guk azokan transmititzen dugun mezuaren gauzatzea da. Azokako filosofia

gorpuztu egiten da Plateruenean. Orduan, zer naturalagorik Plateruena bera azokaren parte izatea baino. Aurreko urteetatik hona elkarlanerako formulak aztertzen ibili gara, eta uste dut asmatu dugula. Koordinazio mahaian egon dira beste hainbat elkartegaz batera, eta Plateruena erkarpenagaz gustura gaude.

**Azokaren orain arteko bideari buruz jardun dugu. Bide horrek nora darama etorkizunean?**

Ahal den diziplina artistiko gehien batu gura ditugu. Arte eszenikoaren arloan antzerkiagaz hasi ginen. Aurten, saiakera bat egingo dugu bakarriketekin. Baina beste hainbat diziplina daude. Dantza ere arte eszenikoa da, eta esparru zabala hartzen du: dantza garaikidea, klasikoa, folklorikoa... Komikiak eta argazkigintzak ere merezi dute gure arreta. Batzuk barre egiten didate aipatzen dudanean, baina bideo-jokoen mundua ere hor dago. Gero eta garapen handiagoa du, eta euskaraz ere egiten dira lanak. Industria indartsu bat badago gauza interesgarriak egiten. Horiek denak apurka-apurka sartzea da gure helburua. Baina hazkunde proportzionala eta sanoa izan dadila nahi dugu. Aurten, iaz sortutako hiru gune berriak indartu gura ditugu, eta horiek egonkortzen direnean, azokan beste diziplina batzuk ezartzen joango gara.

**Hasi berri den azokarako desio-oren bat?**

Aipatu ditugun kate horiek denak pozik geratzea. Desio hori betetzen bada, aurtengo Gabonak aurreratuta etorriko zaizkit.

**Zein da ikusi duzun azken kontzertua? Eta irakurri duzun azken liburua?**

Musikan, BECen egin zen Becatu jaialdia: Esne Beltza, Zea Mays, Berri Txarrak... Liburuari dagokionez, Toti Martinez de Lezearen *Veneno para la Corona*.



**Aiert Goenaga •**

31 urte, Ondarroa

Euskal Liburu eta Disko Azokako zuzendaria

**FAUSTEGOIENAN DURANGO**

**2 LOGELA**

**198.000 €**

2 LOG  
90 M<sup>2</sup>

**3 LOGELA**

**290.000 €**

3 LOG  
109 M<sup>2</sup>

**AZKEN  
2 ETXEBIZITZAK  
SALGAI**

Domotika - Ganbara  
Interneterako doako konexioa  
Horma-armairuak  
**GARAJEA AUKERAN**

**2013an 2. FASEA**



**GARAJEAK  
SALGAI**

**bbk** -k finantziatua

Kontratuzko balorik gabeko aurreko bista orientegaria

**ERAIKUNTZA  
ETA GESTIOA**

**ARGOLABE, S.A.**

Joxemiel Barandiaran, 8 A, 1ºC - DURANGO

Tel.: 94 681 44 95 • Mug.: 650 397 007  
e-mail: argolabe@hotmail.com